



uk

41. zenbakia / 2003 maiatzak 11





Gazte eta errekurtsio gutxiko familientzako etxebizitzak	Bizi kalitatea eta jasangarritasuna	Gazte, euskera, enplegu... arloetan plan zehatzak	Kultura eta Kirol ekipamenduen gehitze eta hobetzea	Berdintasun plana, gizarte zerbitzuak eta haur eskolak
--	-------------------------------------	---	---	--

Iñaki Zarraoarekin, Getxo aurrera



Bozkatu eraginkor.

Iñaki Zarragoa,
Getxoko Alkatetzarako hautagaia

«Elefanteak borrokan dabiltzanean, belarrarena da sofrikarioa» Esaera afrikarra

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Bikote bitxi bat. Asier Mentxaka.
6. PLAZA. Lemoizko pantera, Itziar Mielgo. Leihatila, Josu Esnaola.
7. LEHEN ETA ORAIN. Metalquímica, Astrabudua.
8. TALAIA. Beste begirada bat.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 22.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Guardasolak. Asier Mentxaka.
26. BERBETAN. Martxelo Otamendi. Unai Brea.
30. ERREPORTAJEA. Korrikako argazkiak.
36. ERREPORTAJEA. Etorkinak Uribe Kostan.

KULTURA ETA AISIA

38. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea eta Cinema Paradiso.
39. MUSIKA. Zei taldearen disko berria.
40. IRAKURGAIK. Esti Ezkerraren zutabea eta liburu baten balioa.
41. ELKARRIZKETA. Mike Nedo.
42. SAREAN. Internet Iker Merchán-en eskutik.
43. KOMUNIKAZIOA. Telebistako doitzeta karta.
44. NATURA. Zapelatzeta eta galipota.
45. MODA. Lodientzako jantziak.

EUSKARAZ

46. URIBERTSOAN BARRENA. Nahikari Aiori elkarrizketa eta gainera bere bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.
48. AKABUKO PUNTE. "Ez dok amairu" esakere eta R. M. Azkueren testu bat.
50. EUSKARA. Berriak, elkarrizketa eta Getxoko toponimia.

AMAITZEKO

52. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa. Non jan pizza bat? Adibidez, Gorizko Xurut tabernan.
54. HOROSKOPOA.
55. KOMIKIA. Dogan Gozel.
56. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
57. FLASH BACK. Areetako Madre del Divino Pastor ikastetxea, 1947.
58. AITORMENAK. Jose Ituarte. Eunete Serrano.



26 Martxelo Otamendi

Berbetan

1993an Euskaldunon Egunkariako zuzendari izendatu zuten 45 urteko tolosarragaz egon ginen berbetan



36 Etorikak gurean




46 Nahikari Aio



41 Mike Nedo



58 Jose Ituarte



AZALA: Asier Mentxaka



Kafe Antzokiak maiatzan antolatu dituen ekitaldietarako sarrerak lor ditzakezu. UKra deitzen duten pertsonen artean bina sarrera zozketatuko dira

ADI LAGUN!

09 barikua: **DBF (Basque Dub Foundation) + Dj GREG DREG (Dreadzone dj)** 2 sarrera
15 eguena: **EKON & JOUSILOULI** 4 sarrera
22 eguena: **CONCORBADO** 2 sarrera
23 barikua: **POTATO** 2 sarrera

sarrerak debalde **94 491 13 37**

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBI BIDEA: Arnetzi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48900 GETXO
e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Eunate Serrano
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Bitor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Nagore Etxebarri, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Iratxe Agirre, Edurne Ugarte, Xabier Buenetxea, Patxi Díaz, Gonzalo Iribanegaray, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIAK: Gorka Vázquez, Mitxelko Uranga, Dogan Gözel, Inigo Mirantes
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / Inprimategia: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazink dago
© Boluntzarreta
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaideak da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du



Itzalgane Erreka / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta



GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Leioako Udala



Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Erandioako Udala



Aldizkari honek Erandioako Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

UK

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Zaharrak berri

Aste Santuko jai-egun mordoak geuri ere eragin digu. Jesusen omenezko zubitzarrak gure hamaboskaritasun planak zapuztu ditu, bi astean behineko maiztasunak exigitzen dituen epe zorrotzak nekez ezkontzen dira-eta apirilak ekarri digun jai-egun kopuru ederragaz. Hilabetekari bihurtuta datorkizue, beraz, UKren zenbaki hau, hemendik aurrera eta udako oporrak bitartean ohiko erritmoari berriro eusteko promesaz batera.

Geure buruen zuritze-saio honen ostean, ekin diezaiogun behingoz “Gu geu” txoko honetan benetan jorratu gura dugun gaiari. Badirudi batzuek ez dituztela jaiak aintzat hartzen; deskantsu barik dabilta, jo eta ke, euskalduntasunaren adierazle izan gura duen edozerren kontra. Oraindik Egunkariaren itxikeraren ohiartzuna guztiz amata ez den honetan -batzuen gogoan behintzat-, eginkizun nagusiak euskal hiritartasun-agiriak kudeatzea eta Amaiurren Aberri Egunak deitza dauzkan erakunde baten kontra jo dute. UKren zenbaki honetan bertan Martxelo Otamendik egindako adierazpen batzuk, hortaz, ia profetikoak direla esan dezakegu.

Otsailean hasi ginen UKko ataltxo honi editorial kutsua ematen, eta, ordudanik, badirudi batzuk tematu egin direla beti gai berberaz idatz dezagun. Guk, ze erremedio, haien doinuari egokitu behar geure dantza. Ea noiz egokitzen zaigun euskaldun izatea dagoeneko arriskutsua ez dela esatea. Gure esku dago.

UK-ko lantaldea

goierritarak



zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Urbe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Arnetzi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48900 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / fax: 94 491 58 31 / bulego orduak: 08:00 / 15:00



ERANDIO, 2003

Bikote bitxia / *National Geographic*-eko erreportaje marduletan ikusten ditugun bufalo edo errinozeroen inguruan hegazti txikiak intsektu bila ibiltzen diren bezalatsu, halaxe dabil auto nimiñoa, itsasontzi handi, ia beldur emateraino handiaren babesean gozo. Erandion, Ibaizabalen ertz porlaneztatuan, aurkitu dugu bikote xarmangarria. / Argazkia: Asier Mentxaka

Leihatila

> Josu Esnaola

Horrela
egingo dugu

Lantzean behin Argia-ren urte-karia begiratzeko ohitura daukat, bertan gauza interesgarriak aurki daitezke-eta. Aurreko batean, esaterako, telebistari buruzko datuak begirutzen ibili nintzen, 2001ekoak, oso datu jakingarriak egia esan. Hilabetez hila-bete ETB-1eko saiorki ikusiena agertzen da bertan, eta aze kasualitatea, uztailan izan ezik gainontzekoetan futbol partidaren bat zen ikusiena; uztailan, aldiz, pilota.

Honek zer pentsatua eman beharko liguke, guri ez ezik agintariei ere, ezin baita ahaztu, kasurik onenean, ereiten dena jasotzen dela. Eta ETB-2ren kasua are okerragoa da, ikusi bestela bazkalosteko saioa: euskal kulturako ereduak bultzatu beharrean Espainiako jendilajez betetzen digute burua. Gainera, neurri handi batean, gure diruaz ordainduta. Lagun batek zioen legez, horrela egingo dugu *Espainia grandea*. 4

Iritzia

Joan den hilean Lemoizen agertutako panteraren harira, Ekologistak Martxan taldeko kide batek honako iritzia helarazi du.

Pantera bat Lemoizen



«Nahi dugun
animalia
edukiteko ohitura
salatu nahi dut;
ahalik eta
exotikoena hobe»

Aurreko hilabetearen hasierak ezohizko berri bat ekarri digu: Ertzantza eta Foru Aldundiko baso-zainek Lemoizeko auzo bat arakatzeko zeuden pantera baten bila. Hori entzunda, hauxe da nire buruari egiten diodan galdera: ze demontre egiten du pantera batek Lemoizen? Neuk nire ondorioak ateratu ditut jada. Lehenengo eta behin, administrazio ezberdinen jarrera salatu nahi dut: animalien eskubideak babesten dituzten legeak daude (adibidez, Animalien Eskubideen Deklarazio Unibertsala, zeinek bere 4. artikuluan basatia den animalia espezieak bere habitatean bizitzeko eskubidea duela dioen edota CITES konbenioaren onarpenaren ondorioz, animalien nazioarteko komertzializazioa kontrolatzeko menpe uzten duen) eta gure administrazioak lege horien onarpena bermatzeko ez daude ezer egiten.

Bestaldetik, eta negargarriagoa dela uste dut, gure gizartean nahi dugun animalia edukitzeko sortu den ohitura salatu nahi dut; ahalik eta exotikoena hobeto. Animaliak bere habitateetik urruntzeak suposatzen duen injustiziaz gain, gure lurretan ere arrisku handiak eragiten ari gara: alde batetik, gizakiarentzat; animalia handitzen doa eta, arriskutsua izan daitekeenez, edonon abandonatzen dugu. Ez da arraroa boa bat aurkitzea ganbara batetan edota gure ibaietara pirañak botatzea. Eta bertokoak ez diren espezieak edonon lagatzea, bertoko espezieentzat ere arrisku bat da; hain arriskutsua den hondakari bat aske egotea ez da gizakiontzat arrisku bat bakarrik, beste animalia espezieentzako ere bada.

Jar zaitezte animalien kasuan: etxetik urrun, lagunengandik urrun, betirako gartzelaratua eta dena animaliak maitatzen dituela adieratzen duen basa-pizti batengatik. Animalia exotikoak ikusi nahi badituzue, bazkalorduan kriston erreportajeak ematen dituzte telebistan! 4

Itziar Mielgo (Ekologistak Martxan)

photoshop > tranbia Getxoko Maidagan kalean



Argazkia eta manipulazioa: Asier Mentxaka



Iraganez doa denbora* beti / ASTRABUDUA, METALQUIMICA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

gauzak > kondoia

Erabiltzen erraza, ez du ondorio fisiko kaltegarrik... Kondoia antisorgailurik eraginkor eta garbiena da, eta gaixotasun askotatik babesten gaitu. Gaur egun, modernotasunaren aro honetan, era guztietakoak topa daitezke merkatuan: zaporea, kolorea, sentsibiltatea... aukeran daude. Baina ez da beti holako aukera zabala izan kondoiairen historia luzean. Antzinako erromatarrek ere erabiltzen zituztela uste da (haienak abereen maskuriez eginda zeuden), eta Internet-eko orri batek aipatzen duenez, Frantziako leize baten badago kondoia daukan gizon baten irudia. Duela 12.000 urte ingurukoa. Kadukatuta egongo da, seguru. ^m

Antisorgailurik eraginkor eta garbiena da kondoia



Algortan topatu ditugu zakarrontzi hauek

begizorrotz > zahar-berriak, elkarbizitzen

Esanda daukagu aurreko UKren baten Getxoko Udala zakarrontzi zaharrak kendu eta berriak paratzen hasita dagoela. Hiriko txoko honetan, ordea, berria ipini bai, baina zaharra kentzea ahaztu zaie nonbait. Edo, beharbada, geure hondakinak botatzeko orduan ere demokrazia beharrezkoa dela iritzi dio baten batek. Doazela zakarrontzi moderno-futuristara aurrerakuntzaren zale amorratuen platan azal eta gozokien estalkiak. Nostalgikoentzat, berriz, betiko zakarrontzi apala aukeran, oin bakarra zoruan ondo errotuta daukan beteranoa, mundu honetako zikinkeriaz aspaldi jabetua. ^m


bazen > Lamiakoko aerodromoa

Areetatik Bilbora Ibaizabal ondoko errepidetik bagoaz eraiki gabeko lur zati bat ikusiko dugu Leioako lantegien artean: Lamiakoko aerodromoa izan zenaren lur-eremua. Aerodromo hau, eta orduan oso behin-behinekoa zen Sondikakoa, italiar eta alemaniar legioen kontra borrokatu zuten hegazkin urrien basea izan zen. Aerodromoak pista bakarra zuen, kilometro bat luze eta 250 metro zabal, eta hura babesteko ere, hegazkin kontrako arma bakarra. Alderdi bien indarren arteko aldea nabari-nabaria zen, beraz. Gainera, etsaien hegazkinen etengabeko helburua izan zen aerodromoa eta hainbat alditan bonbardatu zuten; 1936ko abuztuaren 10ean lehenengo aldiz. Bestalde, aerodromoa egin aurretik, lur-eremu horretan zalditoki bat zegoen; Lamiakoko hipodromoa, hain zuzen ere. ^m

Irudian, Juan Ignacio Pombo Alonso pilotua eskualdean hegazkinezko bidaien aitzindaria



datua > Uribe Kostako tenperaturak



Eguraldi on eta beroarena omen den sasoiaren atarian gaudenez, geure buruari galdetu diogu zeintzuk izan ete ziren Uribe Kostak iaz izan zituen tenperaturarik altuena eta baxuena. Ba hona hemen erantzuna: 36 gradu bata, eta 6 gradu zero azpitik bestea. Ezin izan dugu jakin, ordea, zein egunetan izan ziren tenperatura horiek, urtekari meteorologikoan ez dira-eta datak agertzen. Hala ere, eta ildo horretatik, beste datu interesgarri batzuk lortu ditugu, adibidez, eskualdeko urteko batezbesteko tenperatura 14'6 gradukoa dela, edo Urduliz eta Berango Uribe Kostako udalerririk hotzenak direla; beroenak (edo tenperaturarik leunenak dauzkatenak), ostera, Getxo eta Plentzia. Dena den, eskualdean nahiko homogeneousutasun termikoa dagoela esan beharra dago. Datuok Edorta Román meteorologo sopeloztarrek eman dizkigu; berataz gehiago jakin gura baduzue, esku artean daukazuen UKren 18. orrialdea irakur ezazue. ^m

kale izendegia > Simón Otxandategi



Berangoko ongile handia 1818an jaio zen. Miguel Otxandategi eta M^a Teresa Aretxabaletaren bederatzigarren semearen gainean hamaika zurrumuru esan da, Ameriketara joan zela eta handik diruz beteta itzuli zela, esaterako. Dena den, 1846an lortu zuen arkitekto titulua. Galdameseko mendietan hasi eta Sestaoko kairaino heltzen zen trenbidea eraiki zuen Simón-ek. 62 urte zituela zendu zen Bilbon 1880an, apoplexiak jota; Mallonako hilerrian lurperatu zuten, baina bere gopuzkia Berangoko elizaren barruan eraiki zen panteoira eroan zuten 1901ean. Simón Otxandategik Berangori utzi zion dirutzarekin hainbat lan egin ziren herrian; garrantzitsuena, Udaletxea eta neska-mutilentzako herri eskola hartu zituen eraikina. ^m

Irudian, Simón Otxandategiren bustoa Elexalden



erakusketak
antzerkia
dj.ak

ALGORTA

BISITATU GURE DENDA!



350 ^{m²}
KIROLERAKO
GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL
DENDA

TORRENE 4
ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA
TF. 94 491 18 82

Gerturik daukagu odola

Getxoztarrek Bizkaiko batezbestekoari eusten diote odola emateko garaian, baina EAEkotik urrun geratzen dira. Hala ere, gauzak asko **hobetu** dira 1987an **odol-ematea** modu planifikatuan egiten hasi zirenetik

Geure odola ematea egin dezakegun elkartasun ekintzarik handienetakoa da. Getxon, bost gunetan eman dezake odola gura duen edonork, eta hiriko biztanle askok daukate ohitura hori. Biltzen den odol kopurua, ordea, ez da heltzen OMEk (Osasunaren Munduko Erakundeak) gutxienekotzat jotzen duenera. Besteak baino zikoitzagok ei gara zainak hustutzeko orduan.

Iaz Getxoko 993 lagunek eman zuten odola, Bizkaiko Odol-emileen Elkarreak eman dizkigun datuen arabera. Jesús González elkarteko presidentea eduki dugu berbalagun, eta berak eman digu hirian odola emateko dauden aukeren berri: “Getxon, bost lekutan ipintzen dugu odol-emateko unitatea, modu egonkorrean. Horrez gain, zapatu batzuetan Algortako geltokiaren ondora ere joaten gara eta oso emaitza onak lortzen ditugu”.

Gonzálezek aipatutako bost gune finkoak San Nikolas plaza, Algortako anbulatorioa, Salbatzailearen eliza, Areetako anbulatorioa eta Erromoko Santa Eugenia eskola dira. Batzuetara besteetara baino sarriago joaten dira baina, oro har, hilerio egoten da odol-emate unitateren bat Getxon.

Hiri handiak, “idorragoak”
2001ean odola eman zuten 993 lagun horiek 2.086 bider eman zuten. Horrek Getxon mila biztanleko 39 emate daudela esan gura du, Bizkaiko indizea baino apurtxo bat gehiago (38) eta Euskal Autonomia Erkidegokoa baino gutxiago



Getxon 1.200 lagun dira odola emateko ohitura daukatenak

(46-48). Azken hori da, hain zuzen, Bizkaiko Odol-emileen Elkarreak gutxienekotzat jotzen duen indizea, OMEk emandakoa handiagoa bada ere (50). “OMEk zenbaki hori eman zuenean odola oso-osorik sartzen zitzaion gaixoari; gaur egun, gaixoak behar duen odol-osagaia soilik sartzen zaio”, argitu du Gonzálezek.

«**Hiri handietan, jeneralean, odol gutxiago ematen da herrietan baino»**

Bestalde, hiri handietan, oro har odol gutxiago ematen da herri txikietan baino. Hirietako bizimoduak eragiten du hala gertatzea, kaletarrek nor bereaz bakarrik arduratzeko joera handiagoa dute eta. 1987an hasi zen Odol-emileen Elkar-

tea plan baten arabera lana egiten. Garai hartan “mila biztanleko 8 emate besterik ez ziren egoten”. Orain, berriz, 1.200 lagun inguru dira Getxon odol emateko ohitura daukatenak, eta hiriko emileen elkarte bat ere sortu da, Bihotz Handi izenekoak. ^m

DATU BATZUK

- 2002an **993 lagunek** eman zuten odola Getxon, **2.086** alditan.
- Getxoko emaleen %**64** gizonezkoak dira, eta %**36** andrazkoak. Batez besteko arrunta da hori. Kontuan hartu behar da gizonek urtean lau bider eman dezaketela odola, eta andreek hirutan baino ez.
- Odola emateko **18** eta **50** urte bitarteko adina behar da, eta **50** kiloko pisua gutxienez.

Sanisidroak, anai pobrea

Maiatzaren 15etik 19ra izango dira **Getxoko jaiak**



lazko jaien irudi bat

Maiatzaren 15ean, San Isidro egunean, hasiko dira aurtun Getxoko jaiak. Ohi bezala, aurrekontu txikiaz eta ordutegi estuaz konpondu beharko dira antolatzaileak. Duela zazpi edo zortzi urte Eleizpe Eskaut Taldea, oso jende gaztea, dabil jai-batzorde lanak egiten; “*lehen, gizon bakar batek egiten zituen*”, azaldu digute. Hala ere, egitarauko hainbat emankizun Itxas Argiaren esku egoten dira, tradizioz.

“*Aurrekontu txikia daukagu eta ordutegiak murriztu dizkigute*”, erantzun dute Sanisidroek daukaten erakartze-ahalmen eskasaz itaundu diegunean. Udaletxeko

Kultur Arloak eman dizkigun datuen arabera, musika goizaldeko 1ean kendu behar da, eta txosnak guztiz itxita egon behar du 2:30etan. “*Egunerako jaiak bihurtu gura dituzte hauek*”, diote jai-batzordekoek, “*Saninazioak edo Portu Zaharrekoak gauerako bihurtu gura dituzten bezala*”. Udaletxeko arduradunek, berriz, ez dute uste holan denik, “*baina Getxoko beste jai batzuk garrantzitsuagoak dira eta ordutegi zabalagoa behar dute*”. Sanisidroetako egitaraua agendan topatuko duzue, 23. orrialdean. Aurtun, gainera, berrikuntza batzuk egongo dira. ^m


GOBELA IKASTOLAK SALATZEN DU

Gobela Ikastolako Eskola Kontseiluak “iraintzat” hartu du Hezkuntza Sailak eta Getxoko Udalak ikastetxean tokirik ezak sortzen dituen arazoei eman dieten irtenbidea, prentsa ohar baten bidez adierazi duenez.

Gobela Ikastolako arduradunak harrituta utzi ditu Hezkuntza Sailaren Kontseilariordea den Abel Ariznabarretak, aspalditik zeuden proposamenak (San Ignaziora aldatzea, ikastolaren inguruan lanak egitea edo eraikuntza berri bat egitea Aiboa institutua zegoen tokian) atzera bota eta mahaigaineratu duen irtenbidearekin: Gobela Ikastola Leioara eroatea, Artatza eskolaren eraikuntzara, hain zuzen, “baldintzak zehaztu gabe, gainera”.

Gobela Ikastolako Eskola Kontseiluak Hezkuntza Sailaren seriotasun falta salatuta, “proposamenak aldatzen dituelako inolako azalpenik eman gabe, eta Gobela Ikastola beste ikastetxeen arerio modura agertarazten duelako”. Bestalde, Udalak izan duen jarrera ere gaitzetsi du, “getxoztarrentzako irtenbideak herrian bilatu ordez, arazoa ginetik kendu nahi duelako beste herri batera bidalita”.

Gobela ikastola



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzan.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

EUSKAL KIROLAREN VI. JARDUNALDIAK GETXON

Maiatzaren 18an izango ditugu Getxoko probalekuan Euskal Kirolaren VI. Jardunaldiak. Eguerdiko 12etatik aurrera, Euskal Herriko, Segoviako eta Asturiaseko kirolariak ahalegin betean ikusi ahal izango ditugu, bakoitza bere lurraldeko herri kirolen erakustaldia egiten. Oraingoz ez dago ziurtatuta beste herrialdekorik etorriko ote den. Getxoko Udaletxeak 18.000 euroko dirulaguntza eman dio Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federazioari, ekitaldia prestatzeko. Sarrera dohainik izango da.



IRAKURLE GEHIAGO HIRIKO LIBURUTEGIETAN

Iaz kasik 149.000 lagunek erabili zituzten Getxoko liburutegiak. Aurreko urtean baino gehiago, beraz. Udaltzako liburutegietatik, Areetakoak hartu zuen bisitari gehien: 51.378. Gutxienez, Erromakoak (18,858). Etxean irakurtzeko mailegatutako liburu kopuruak ere goragotxo egin du 2001ekoaren aldean: batez beste, getxoztarrek 161 liburu eroan zituzten euren etxetara egunero, aurreko urtean baino bederatzik gehiago.

KATALOXAK GETXOKO KOSTALDEAN

Paratuko dituen enpresak adierazi digunez, maiatzaren ipiniko dira Getxoko kostaldean egongo diren zazpi katalojak. Horietatik begiratuta, begien aurrekoa hoge bider handiago ikusi ahal da. Panoramika ederrak izango dira, beraz. Zazpi katalojak, hurrenez hurren, Areetako Txurruka kaian, Areetako ontziralekuan, Ereagako errotondan, Portu Zaharrean, Usategin, Arrigunagan eta Galean kokatuko dituzte.

Jesús Alija > Kupoi saltzailea

“Sari bat ematen dudanean, gehiago datoz jarraian”



Argazkian, Jesús Alija

Getxon zorteak aurpegi bat edukiko balu, Jesús Alijarena edukiko luke zalantza barik. Duela 46 urte Zamoran jaio zen arren, guztiz algortarra da, “*hiru hilabete nituela gurasoak hona etorri zirelako*”. Poliomielitisa dela eta, makuluak erabili behar ditu, baino horrek ez dio eragotzi disc-jockey izatea gazte denboran. Jesús-ek 17 urte daramatza ONCEko kupoia saltzen, eta esan digunez, “*Getxoko zaharrena naiz*”.

Orain arte, sei aldiz eman die zortea bere erosleei: “*Eman daiteken guztia eman dut, bariku eta domekako 'kuponazoak' izan ezik. Horiexek falta zaizkit bakarrik*”.

Apirilaren 1ean, 300.000 euroko sari nagusia Algortan tokatu zen, Jesús Alijak ohiko erosle bati saldu zion kupoi bati ezker; 64.046 zenbaki palindromoa zeramana izan zen, hain zuzen ere. “*Gau hartan ezin izan nuen lorik egin*”, aitortu digu Jesús-ek. “*Sariak ematen hasten naizenean, ez naiz gelditzen, gehiago datoz jarraian*”. Eta egia dio, apirilaren

erdialdera arte sari txiki asko eman ditut; eta; guk kupoi bat erosi genion, badaezpada.

Kasunen ospetsua

Milioi eta poztasun banatzaile honek Algortako Kasune kalean dihardu. “*Kioskoa eduki arren, oso gutxitan nago hor. Nahiago dut jendearekin harreman estuago bat izatea, leihatilaren atzean egotea baino*”. Horregatik,

«300.000 euroko saria banatu berri du Jesusek»

bere kioskotik oso gertu dagoen supermerkatu baten atarian aurkitu dezakegu egunero. Alija oso ezaguna eta maitatua da inguru horretan, eta harreman onak ditu auzokoekin: “*Urte asko dira eta betiko bezereen laguna naiz. Batzuk kupoiak saltzen hasi nintzenetik ezagutzen ditut, eta egunero erosten didate bat, 17 urtetan saririk lortu ez arren*”. Zortea horrelakoa da-eta: apetatsua. m

I.E.S. URIBE-KOSTA B.H.I.

E.S.O.

- * Modelos: A, B, y D
- * Transporte escolar

BACHILLERATOS

- * Modelos: A, B, y D
- * Modalidades:
 - Ciencias de la Naturaleza y la Salud
 - Ciencias Sociales y Humanidades



D.B.H.

- * Ereduak: A, B, eta D
- * Garraioa eta jantokia

BATXILERGOAK

- * Ereduak: A eta D
- * Modalitateak:
 - Natur eta Osasun Zientziak
 - Giza eta Gizarte Zientziak

Heziketa-zikloak

ERDI-MAILAKO ZIKLOA
ADMINISTRAZIO-GESTIOA

GOI-MAILAKO ZIKLOA
**INFORMAZIO ETA
MERKATURAKETA TURISTIKOAK**

Onarpen epea Batxilergoan: maiatzaren 2tik 9ra / **Heziketa-Zikloetan:** ekainaren 2tik 11ra
Batxilergo eta Heziketa-Zikloentzako matrikula-epea: ekainaren 30etik uztailaren 4a arte

Gatzamina kalea z/g. Tel. : 94 677 00 82 • Faxa: 94 677 08 50

Plentzia

Instituto E. de Formación Profesional Superior

Fadura
Institutua

Goi-Mailako Lanbide-Heziketako B. Institutua

Kalitatezko Hezkuntza

D.B.H. (A eta D ereduak)
BATXILERGOAK
(A eta D ereduak)

HEZIKETA ZIKLOAK

Erdi mailakoak:

- Kontsumorako ekipa elektronikoa
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen elektromekanika
- Karrozeria
- Erizaintzako zaintza osagarriak

Goi mailakoak:

- Produktu elektronikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Osasun-dokumentazioa

Bizkerre Kalea z/g. Tfnoa: 94 406 90 00; Faxa: 94 406 90 01; E-mail: 014301aa@hezkuntza.net; www.fadurainstitutua.org

48991 GETXO-BIZKAIA

Herriko

mende bateko **historia** hilabetez **Artatzan**

Apirilaren 29an zabaldu zen maiatzaren 25era arte Artatza jauregian egongo den “Leioa, mende bateko historia” izeneko erakusketa. Nahi duten ikastetxe eta elkarteentzako bisita gidatuak egiten dituzte, baina horretarako hitzordua behar da. Erreserbak egiteko (baita argibide gehiago eskuratzeko ere), **656 78 26 03** telefono zenbakira dei daiteke. Erakusketaren inguruan hiru hitzaldiz osatutako ziklo bat ere antolatu dute, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gaztelako Etxea eta Errekalde Adinekoen Etxearen laguntzarekin. Hizlari guztiek EHUko Demografia Departamentuan egiten dute lan: José María Beaskoetxea, José Antonio Pérez, Rocío García Abad, Karmele Zarraga eta Arantxa Pareja. XIX. mendearen amaiera aldera gertatu zen Lamiakoko industrializazioaz, lan mundua eta memoria historikoa berreskuratzeaz, eta Leioako protagonisten gainean mintzatuko dira. Hitzaldiok arratsaldeko 19:30ean izango dira, maiatzaren 13tik 15era bitartean. m



Iaz 677 salaketa jaso zituen Leioako Udaltzaingoak

Delitu asko dago Leioan?

Batzuen ustez, Leioa ez da herri segurua; Udaltzaingotik, berriz, hainbesterako ez dela diote

Leioa Bai elkarteak herria hobetzeko lanean dihardu. Besteak beste, lapurketa kopurua murrizteko neurriak hartu behar direla aldarrikatzen dute, Ramón Fernández presidenteak adierazi digunez: “*Dena ondo dagoela esaten dute alkateak eta Udaltzaingoko buruak, baina ez da hala. Lapurketak daude etxeetan, autoetan...*”. Fernándezen ustez, salatzen direnak baino delitu gehiago egiten dira Leioan. “*Askotan, salaketa egiteak dakartzan buruhausteengatik, hiritarrok uko egiten diegu geure eskubideei*”. Horren aurrean, kalean poliziaren presentzia handiagoa egon beharko litzakeela uste du

Leioa Baik, “*oinez, eta ez autoz*”. Udaltzaingoko iturriek, berriz, “*alboko herriekin alderatuta*” Leioa nahikoa herri segurua dela esan diote UKri. “*Lapurketa gehienak, %80, autoetan izaten dira. Ez dago intentsitate handiko delitu askorik, alegia, etxeetan egindako lapurketak, edo eraso fisikoarekin batera egiten direnak. Horrek ez du esan nahi, noski, daudenak eragozten ahalegindu behar ez garenik*”. 2001ean 510 salaketa jaso zituen Udaltzaingoak Leioan; iaz, 677. Horietatik, 66 eta 126, hurrenez hurren, herritik kanpora egindako delituei zegozkien. m

San Juan Bautista abesbatzari omenaldia

Koru-musikak

badauka historiarik Leioan



Abesbatzaren gaur egungo kideak

UK hau argitara irtengo den egunetan gutxi gorabehera, omenaldia egingo diote San Juan Bautista abesbatzari. Maiatzaren 7an eta 10ean, Iruñetik eta Bartzelonatik etorritako ospe handiko abesbatzek kantatuko dute Jon Deunaren elizan. 9an, berriz, ekitaldi nagusia izango da. Lehenbizi, Ameslariak otxoteak abestuko du. Ameslariak 1961ean sortu eta 1968an desagertu zen. Talde honen jatorria, San Juan Bautista abesbatzarena bezala, elizako abesbatza izan zen. Urte hasieran berriz elkartu ziren entseguak

egiteko. José Ignacio Sarria, Leioako Musika Eskolako presidentea, dabil zuzendari lanak egiten eta, dioenez, “*ahotsa nahiko ondo gorde dute*”. Ameslariak-en ostean, San Juan Bautistako 80 kide ohik abestuko dute eta, gero, Kantika Korala Musika Eskolako gazte-eskolaniaren txanda izango da. “*Leioako koru-musikaren iragana, oraina eta geroa elkartu gura izan ditugu*”, dio Sarriak. Oraina, gaur egungo abesbatzakoen ahoetatik etorriko da, eurak izango dira-eta 9ko emanaldian parte hartuko duten azkenak. m

SAN BARTOLOMEKO LUDOTEKA ZABALIK

Maiatzaren 5ean (astelehena) Leioako Auzotarrok elkarteak bultzatu duen eta San Bartolome Herri Ikastetxetik oso gertu dagoen ludoteka berria ireki zen. Elkarteak daukan egoitzan dago kokatua, San Bartolome Auzoa kalearen 1 zenbakian, hain zuzen ere. Astelehenetik barikura arte dago zabalik, arratsaldeko 4etatik 7etara; oporraldietan, berriz, goizeko 10:30etik eguerdiko 13:30era irekiko dituzte ateak. Gutxi gorabehera, hamabi urte arteko neska-mutilek erabil dezakete. Eskolako lanak egiteaz gain, bakarkako eta taldekako jokoak burutu, ipuinak eta liburuak irakurri, eta Internet-en lehen urratsak eman ahal izango dituzte ludoteka berrira etortzen direnek. Garbiñe Aurrekoetxea leioaztarra dugu bertoko dinamizatzailea.

BEROGAILU ETA ITUR -

T: 430 53

HIRURAK

Sarrikobaso 15

ETXEKO?ELEKTROTRESNEN?KONPON -

Lacofris, s.l. SERVITEC

¥ MARKA GUZTIAK
¥ 24 ORDUTAN ERANTZUNA
¥ 3 HILABETKO GARANTIA
¥ 25 URTEZ ZURE ZERBITZUA

& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

KURKUDI
LIBURUDENDA

Euskarazko irakurgai

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

amesti 7sl

[eraikuntzak]
[etxeetako berrikuntzak]
[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

ERROTULOAK

ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK egiten ditugu

THE BEST
UNE-UNEKO ERROTULOAK

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

Kontratetako langileek berdintasuna eskatzen dute

Azken hilabete honetan sirena hotsak entzuten dira Erandioko udaletxe aurrean arratsaldeko lehen orduetan. Ordu batean hantxe biltzen dira kontratatetako garbitzaileak, lan bera egiten dutela eta, udal langileen soldata bera eskatzeko.

Martxoaren amaieran mozioa aurkeztu zuten Udalean, lan baldintzak berdintzeko negoziatzeari bidea irekitzeko eskatzeko. Gaia bozetara eraman eta berdinketa atera zenez, alkatearen botoak erabaki zuen negoziatzeari ez izatea. Horrez geroztik, kiroldegi, eskola, udaletxe eta beste hainbat udal zerbitzutako garbiketan jarduten diren langileek mobilizazioak antolatu dituzte, eta bere jarrra aldatzeko eskatzen diote alkateari.

Beste udal batzuetan ere lortu dituzte arlo horretako hitzarmenak, eta euren eskaerak ere arrazoizkoak direla erakutsi, borrokan jarraitzeko prest agertu dira langileak.

Izan ere, administrazioetan hainbat zerbitzu azpikontratatzeko dute lan arruntak egiteko eta, lan baldintzei dagokienez, desberdintasun nabarmenak agertzen dira administrazioetako langileen eta lan bera egiten duten kontratatetako langileen artean.



Giro ezin hobea Kanpamartxo egunean



Denetarik ikusi zen: paellak, indabak, sukalkia, bokatak, parrillada...

Erandioko eta inguruko euskaltzale mordoak bildu zen Kanpamartxo ospatzeko Arriagako eskolaren ingurura. Eguraldia lagun bai eta aparteko giroa izan zen egun osoan zehar: dantzak, bertsolariak, bazkaria, umeentzako jolasak, kale antzerkia...

Kanpamartxon talde bakoitzak bere bazkaria prestatzen du eta denetarik ikusi

zen: paellak, indabak, sukalkia, bokatak, parrillada... Umeak jolasean ari ziren bitartean nagusiek bazkalosteko ederra egin zuten trikitixaren laguntzaz kantu-kantari, eta ondoren, 'Patxi eta bat, bi, hiru' taldeak jende guztia jarri zuen dantzari.

Ez da erraza izango datorren urteko jaian halako giroa hobetzea!

PUB IBILTARIA MAIATZAREN 30EAN ALTZAGA IKASTOLAN

Oskorri taldea datorrigu herrira bere 7. Pub ibiltariagaz. Ikerkuntza lanak egiteagatik da nabarmen talde maitagarri hau. Abesti zaharrak berreskuratzea eta bergizarteratzea izan du azken urteetako lanen abiapuntu. Denbora luzeko ikerketa lanaz ehundaka kantu tradizional jaso ondoren, zuzeneko ekitaldietan eskaintzen dituzte, ikastola, eskola, musika ikastegi eta abarretako musikazale guztientzako kontzertu "parte-hartzaile" tankeran. Erandioko Musika Eskolako ikasleekin entzuteko aukera izan genuen joan den urtean, eta hilabete honetan gurekin egongo dira Altxaga ikastolan. Tira ba, Natxo, Bixente eta ikastolako haurrekin kantatu nahi baduzu maiatzaren 30ean duzu aukera!

PINTURA ERAKUSKETA MAIATZEAN ZEHAR

Natalia Conde gazte bilbotarraren lanak ikusteko aukera izango dugu maiatzaren 5etik 18ra arte Altxagan eta 19 eta 31 bitartean Astrabudun, udaletxeke geletan eta Josu Murueta Plazan. Erakusketan Zurbaránbarriko neska honen 12 bat margolan izango ditugu ikusgai. Horietariko batzuek sinbolismoan murgiltzen gaituzte. Beste batzuek berriz, paisaiak islatzen dituzte. Natalia Condek iaz amaitu zituen Arte Ederretako ikasketak, eta ikasketako bost urteetan egindako lana gizarteratu nahi du erakusketa honekin.

Lan guztiak salgai egongo dira. Hala ere, egilearen ustez, egindako lanari prezioa ezartzea ez da batere erraza. Beraz, baten batek gustuko duen margo hori eskuratzeko aukera galdu nahi ez badu margolariarekin hitz egin beharko du zuzenean.



Lan eta trebakuntza planak.	Erando hurbilago.	Topaguneak bilatuz.	Euskara biziberritzeko plan nagusia.	Aurrera goaz elkartasunean.	Garapen jasangarria bidean.	Hobekuntza sozio-sanitarioak.
-----------------------------	-------------------	---------------------	--------------------------------------	-----------------------------	-----------------------------	-------------------------------

Mikel Arieta-araunabeñarekin,
Erando beti aurrera.




Bozkatu eraginkor.

Jaiak dantzari surflari batek iragamiko ditu

Sopelako jaien berri emango duen kartela aukeratu dute dagoeneko. Charly Urbina izan da irabazlea aurtengo herriko jaien kartelen lehiaketan; bertara 50en bat lan aurkeztu dira. Urbinak dantzari baten hankak eta gona gorria nabarmentzen dituen lanari esker irabazi du. Beheko irudian ikus dezakezue-nez, dantzari horrek herria zeharkatzen du Sopelako armarrria daukan surf-ohol baten gainean.

Charly Urbina santurtziarrak laster ikusiko du bere lana San Pedro jaietako egitarauaren azalean, baita Sopelako hainbat tokitan ere; horretaz gain, 450 euroko saria jasoko du.

Bestalde, lehiaketaren bigarren eta hirugarren postuan José Luis Babio getxotarra eta Javier Martínez Garaialde sopeloztarra geratu dira; beraiek 300 eta 150 euroko sariak jasoko dituzte, hurrenez hurren. Azkenik, hamazazpi urtetik beherakoen atalean, Iratxe García-Villaracok irabazi du. ^m



Edorta Román-ek ordenagailuak erabiltzen ditu eguraldiaren iragarpenak egiteko

Isobaren artean Edorta Román-ek eguraldia iragartzen du Sopelako “behatoki” meteorologikoan

Erdi algortarra erdi sopeloztarra den Edorta Román meteorologoa Zientzia Fisikoetan lizentziatu zen. EHUko Leioako Campusean hasi zituen ikasketak, *“baina Bartzelonara joan nintzen ikasketa bukatzeko; han gustukoa nuen Astronomia eta Meteorologia espezialitatea egin nuen”*.

Urtebete baino ez da “Sirimiri Meteo Consult” izeneko enpresa sortu zuela. *“Egun beharrean gaudenok ‘free lance’ aritzen ginen lehen”*, azaldu digu Edortak. Bost lagunek dihardute lanean (denak eskualdekoak), eta meteorologoez gain, programatzaileak eta diseinatzaileak ere badabiltza tartean.

Sopelako Iñaki Deuna kalean dago “behatoki” meteorologikoa: *“Zeruak gordetzen dituen misterioak argitzeko Sopela baino leku hobeagorik gutxi daude”*, esan digu 32 urteko meteorologoak. Hor egiten dituzten iragarpenak hainbat komunikabidetara bidaltzen dituzte: Deia, Radio

Euskadi eta internet-eko zenbait webgune. Kaixo, esaterako.

“Sirimiri”-n ordenagailuekin egiten dute lan batez ere. *“Erabiltzen dugun programari parametro meteorologiko batzuk sartzen dizkiogu, eta aurreikuspenak egiten*

“Aurtengo uda iazkoa baino egonkorragoa izango da”

ditugun tokiaren ezaugarrien arabera, iragarpen bat ematen du”. Román-en berbetan, meteorologoaren lana programak aurreikuspena behar bezala egiten duela segurtatzea da.

Aurtengo udan zer eguraldi egingo duen ere galdetu diogu Edortari, eta dioskunez, *“iazkoa baino egonkorragoa izango da. Hala ere, iragarpen zehatzagoa egiteko oso urruti gabiltza, gure aurreikuspenen muga 15 egunekoa da-eta”*. ^m

Internet&Euskadi Euskal internauten bilgunea Sopelan



Valentín García elkartearen presidentea da

Internet&Euskadi izeneko euskal internauten elkarteak lehen hilabetea bete du, martxoaren 29an jendaurrean aurkeztu ondoren. Elkarteak Sopela aukeratu du egoitza moduan, internet-zale gehien dituen herrietako bat delako, baita teknologia berriak hedatzeko hainbat ekimenen sorlekua izan delako ere.

Duela denbora gutxi sortu bada ere, euskal internauten elkarteak 150 kide dauzka. *“Hasierako harrena oso ona izan da”*, dio Valentín García, 37 urteko sopeloztarra eta Internet&Euskadi-ren presidentea. *“Horrek esan nahi du internet-zaleek elkartearen zain zeudela”*. Lau lanbatzorde ditu: enpresa, informazio sistemak, gizartea eta euskara, *“teknologi berrien esparruan azken honen erabilera bultzatzeko egingo dugu lan”*.

Elkartearen helburua konexioak hobetzea eta euskaldun guztien artean internet-en erabilera zabaltzea da. Arreta berezia eskainiko diete nagusiak, emakumeak, haurrak, gazteak eta langabeak osatutako taldeei, *“zulo digitala deritzona zabal ez dadin gizartean. Hor ere lan asko egin beharko dugu”*. Horretaz gain, euskal web orrialde onenaren Buber sari entzutsua antolatuko dute; hurrengo, laugarren edizioa izango da.

Elkartearen txokoa
Sopelako Kultur Etxean biltzen dira Internet&Euskadi-koak arratsaldeko 19-tik aurrera. Beraiekin harremanetan ipintzeko posta elektronikoa erabili behar da (info@interneteuskadi.org); orain, webgunea berritzen dihardute. ^m

SOPELA AURRERA-K 500 SINADURA GAINDITU DITU

Martxoaren 9an aurkeztu zen Sopela Aurrera, hil honetan egingo diren udal hauteskundeetan parte hartzeko asmoz sortutako plataforma. Horretarako, gutxienez 500 sinadura biltzea zuten aurrebaldintzetako bat, eta apirilaren erdirako lortuta zeukaten helburu hori, talde berriaren zerrendaburu izango den Guillermo Viók azaldu digunez. Hala ere, hauteskundeetan parte hartu ahal izatea “gure esku ez dagoela” dio Viók, “erabaki judizial eta dekretu bidez abertzale eta ezkertiarrei beren ordezkaritza politikoa kendu dietenen esku baizik”. Sopela Aurrera-k hazkunde orekatuagoa eskatuko du herriarentzat: “Sopela ikaragarri hazi da azken urteotan. Etxeak egin dira, bai, baina ez dago lekurik 0-3 urteko umeentzat eskoletan, Kultur Etxea txiki geratu da, osasun kontu askotarako Getxora joan behar da oraindik... Ez dago oinarritzko azpiegiturarik”.

Getxoko Andra Mari Zerbitzu Estazioa

Txartel hau aurkezten baduzu %50ko deskontua izango duzu zure autoaren garbiketarako

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km Getxo / Tel: 94 430 15 00

Erosketa etxera eroaten dogu!!

Ugari supermerkatua


ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan: 9:00-14:00 / 17:40-21:00
Domeka eta jai egunetan: 9:00-14:00

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA



GOIZEAN



Gozoki eta prentsa, gutxi denik
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarreriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA



Taberna Berni

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

Patchwork zati-lana

Berangon bizi den **Patricia Rapson** hegoafrikarrak Ekialde Urrunetik datorren josteko teknika irakasten du

Hamar urte dira Patricia Rapson hegoafrikarra Berangon bizi dela, eta denbora horretan oso ezagun bihurtu dute bere eskulanek. Bere dendan, horietarako materiala saltzeaz gain, ikastaroak ematen ditu. Eta, batez ere, herrialde anglosaxoietan ospe handia daukan patchwork izeneko teknika irakasten du.

“21 ikasle dauzkatz, hiru eskolatan banatuta. Goiz eta arratsaldeaz jarduten gara, eta ikastaro trinkoak ere ematen ditut”. Baina Patricia ez du bere lana Berangon soilik egiten; sarritan beste herri batzuetara joaten da hitzaldiak ematera edo patchwork-a irakastera.

Patch berbak zati esan gura du; work-ek, lana. Etimologiak, beraz, teknikaren gaineko informazio handia ematen du, patchwork-a, izatez, oihal zatiak batzea da eta. “Modu berezian elkartzen dira zatiok, irudiak sortzeko”, dio Patricia. “Denetarik



egin daiteke teknika honen bidez. Nire ikasleak, esaterako, gortinak, mantak... egiten dabilza orain, baina maila handiko egileek koadroak egiten dituzte, benetako arte-lanak”. Berak ez digu aitortu, baina beraren ikasleengandik jakin dugunez, Patricia ere ez da artista makala, eta dagoeneko hamaikatzeko erakusketatan egon dira bere lanetako batzuk. m

Harremanetarako: 94 668 11 52



Argazkian, Patricia Rapson

Laster Berango interneten

www.berango.net izena izango duen webgune ofiziala prestatzen ari dira


Ziber-espazioaren aroan bizi gara, eta dagoeneko udalerri askok badaukate beren web orria ikusgai Interneteko sare ikustezi-nean. Berangok oraindik ez, ordea. Baina laster konponduko da hori, Lantik enpresa *www.berango.net* ataria eregiten dabil eta. Oraingoz ez da zehaztu noiz egongo den web orria guztiz amaituta, baina honezkero nahiko aurreratuta daude “lanak”.

Lantik-eko Jon Vázquezek esan digunez, Berangoko web orriak irudi moderno edukiko du, eta orain arte udaletxera joanda besterik egin ezin zitezkeen hainbat gauza edonondik egiteko aukera emango du, herriaren gaineko informazio zabala eskaintzeaz gain.

Besteak beste, dirulaguntzen edo herriko aurrekontuen gainean argibideak lortu gura dituenak web orrian topatuko ahal izango ditu, eta kirol eta kultur elkarten zerrenda ere bertan egongo da. m



Guneen herria eta udalaren gaineko hainbat argibide aurkitu ahal izango ditu herritarrek



Zapatuan sokatira norgehiagokak egongo dira

KULTUR ASTEAREN AZKEN EKITALDIAK

Zoritarrez, Aste Santuko oporralditxoak ez digu astirik utzi Berangoko V. Kultur Astearen berri behar bezala emateko. Hala ere, garaiz gabiltza oraindik azkeneko ekitaldien gainean zeozor esateko. Hilaren 10ean (zapatua), kirola izango da nagusi: goizez, plater-tiroketak eta oinezko nahiz txirrindulazko lasterketak, eta arratsaldeaz (biak 17etatik aurrera) Berango-Mungia futbol partidak eta sokatira norgehiagokak. Domekan, berriz, trontzalarien lana izango dugu ikusgai eguerdiz eskolatan, eta jardunaldi amaiera emateko, antzerkia izango dugu denon gozagarri: lehenik, umeentzako, 13:15ean, eta arratsaldeko 19etan helduentzako (23. orrialdean aurkituko duzue azken honen gaineko informazio gehiago).



AIXERROTA BHI

22 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK MODULOAK

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86

zure publizitatea hemen

94 491 13 37



Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo

tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
<http://www.cianoplan.es>

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA



20º ANIVERSARIO URTEURRENA



KLIMATIZAZIOA

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@euskalnet.net

etorri
eta
ikusii!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

TXIBERRI

edantokia

frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15

BASTARTENTA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

krimea

taberna

Negubide 13

Tel. 94 463 61 82

AREETA

[herriak]

URDULIZ Herria berriztu egingo dute



Herriko pilotalekua laster eraitsiko dute

Datozen urteotan, Urdulizek itxura aldatuko du. Orain arte hainbat zerbitzu opetzi dituzten eraikinak utzi egingo dira –kasuren baten, bota ere bai–, eta haien ordez berriak egingo dira. Horietako bat Kurtzejadako kultur etxea da. Solairu biko eraikin modernista izango da, eta urte bi edo hiruko epean egongo da amaituta, Juan Olea alkateak esan digunez.

Lanik aipagarriena, beharbada, pilota-leku berria izango da. Lehenengo eta behin, orain artekoa bota egingo dute; hala, Elexalde eta Nafarroa kaleak elkartu ahal

izango dira. Pilotaleku berria, aldiz, errepi-dearen bestaldean egingo dute.

Kanposantua lekuz aldatu

Hirugarren proiektua Atxarete eta elizaren inguruak batzen dituen Askarreko bidea irekitzea izango da. Alde horretan, gainera, kanposantu berria paratuko dute. Zaharra kendu egingo da, eta haren gainean etxeak eraikitzeko asmoa dago, baina Juan Olearen esanetan, luze joko du horrek, 8 edo 9 urte beharko dira-eta hilobi guztiak lekuz aldatzeko. ^m

LEMOIZ Panteraren arrastorik ez

Martxoaren 31n, Lemoizko andra batek itxuraz pantera bat izan zitekeen piztia handi bat ikusi eta bideoz eta guzti haren irudiak hartu zituen. Jakina denez, ondoko egunetan bilaketa antzua egin zen, segada ugari ipini arren. Ertzain batek ere ikusi ei zuen animalia, baina ezin harrapatu.

Egun batzuez protagonismo guztia bereganatu zuen katutzarra non egon daite-

keen itaunduta, hala erantzun digu Bizkaiko Foru Aldundiko komunikazio saileko arduradun batek: *“Litekeena da bere ugazabaren etxean egotea berrir*o”. Duela pare bat urte, Galizian kasu bera izan zen; pantera bat ibili zen egun batzuez poliziak eta ingurukoak aztoratzen, baina ezin izan zuten topatu. Batzuen ustez, baliteke pantera hura Lemoizen ikusitako berbera izatea. ^m

Maiatzak 10-25

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: **aldizkaria@euskalnet.net** • Tel.: **94 491 13 37** • Faxa: **94 491 58 31**

ANTZERKIA

BERANGO

► **Tres sainetes**. Berangoetako Kultur Etxean. Maiatzak 11, domeka. 19:00. Berangoko *Txirlora-ACADAE* taldearen eskutik.

ERANDIO

► **Tierra**. Bekoa ikastetxean. Maiatzak 17, zapatua. 19:30. *Entre Mujeres* taldearen eskutik.

GETXO

► **Una noche con Gabino**. Getxo Antzokian. Maiatzak 10, zapatua. 20:00 eta 22:30. Gabino Diegoren eskutik.

ERAKUSKETAK

BERANGO

► **Margoak: Bremengo paisaia eta jendeak**. Erakustaretoan. Maiatzaren 12tik 25era. Unai Azkuneren eskutik.

GETXO

► **Filatelia Elkarte**a. Algortako erakustaretoan. Maiatzaren 12tik 17ra.
► **Gizatiar**. Erromoko erakustaretoan. Maiatzaren 12tik 17ra.
► **Art**. Algortako erakustaretoan. Maiatzaren 19tik 31ra.
► **M^a José Argiñanoren olio eta akuarelak**. Erromoko erakustaretoan. Maiatzaren 19tik 31ra.

LEIOA

► **Circus**. Bulebarrean. Maiatzaren 22tik ekainaren 12ra arte.

PLENTZIA

► **Ana Belén Gil Rosalesen olio eta akrilikoak**. Goñi Portalen. Maiatzaren 15era arte.
► **Araldi emakume elkartearen eskulanak**. Goñi Portalen. Maiatzaren 15era arte.

MUSIKA

LEIOA

► **Nafarroako jotak**. Kandelazubietako karpan. Maiatzak 16, barikua. 20:00.
► **The Pub Ibiltaria (Oskorri)**. Txomin Aresti ikastetxeko belar artifizialeko zelaietan. Maiatzak 16, barikua. 22:30.
► **La Musgaza+Cristina Pato**. Txomin Aresti ikastetxeko belar artifizialeko zelaietan. Maiatzak 17, zapatua. 22:00.

► ANTZERKIA EUSKARAZ

“Pakitarentzat bakarrik” Getxon

Datorren maiatzaren 23an Ernesto Caballero antzerkigile oparoaren *Pakitarentzat bakarrik* lana ikusgai egongo da Getxo Antzokian, Ritxi Lizartzak itzultitako euskarazko bertsioan. Itziar Lazkanok egingo du Pakitarena aktore bakarreko antzezlan honetan. Kafe kikara bat eskuan daukala, protagonistak bere bakardadearen eta zoritxarraren berri emango die ikusleei.

Non: Getxo Antzokia • Noiz: Maiatzak 23, barikua • Ordua: 20:00

IRTEERAK

ERANDIO

► **Urdaburu mendira irteera (Hernani)**. Maiatzak 11, domeka. Atxazpe Mendi Taldeak antolatuta.
► **Muneta mendira irteera (Maltzaga)**. Maiatzak 18, domeka. Mendigoizaleak-ek antolatuta.

ZINEMA

GETXO

► **Last Orders**. Getxo Antzokian, maiatzaren 14an (eguztena), eta Areetako Gran Cineman, maiatzaren 15ean (eguen). Biak 20:00etan.
► **Otilia**. Getxo Antzokian. Maiatzak 16, barikua. 22:00etan.
► **Un final made in Hollywood**. Getxo Antzokian, maiatzaren 21ean (eguztena), eta Areetako Gran Cineman, maiatzaren 22an (eguen). Biak 20:00etan.
► **La zona gris**. Getxo Antzokian. Maiatzak 23, barikua. 22:00etan.

dantzak.10:45: Bertsolariak.12:00: Meza nagusia.17:00: Zaldi probak.
► **Maiatzak 17, barikua**. 19:00: Kalejira *Samba de Moraos* taldeagaz. 21:00: Itxas Argiaren emanaldia. 22:00: Kontzertua: ZEI eta Subversión X.
► **Maiatzak 18, zapatua**. 9:30-12:00: Plater-tiroketarako izen-ematea. 17:00: Umeentzako jokoak. 18:30: Saiheski jana. 22:00: Erromeria.
► **Maiatzak 19, domeka**. 11:00: Azoka gastronomikoa. 12:00: Tortilla txapelketa. 17:00: Herri dantzaldia.

BESTERIK

ERANDIO

► **Etiopiako umeen aldeko jai**a. Erandio Goikoan. Maiatzak 17 (zapatua) eta 18 (domeka). Gurari Aisialdi eta Eskulaneke taldeak antolatuta.

GETXO

► **Kontularien kluba**. Algortako Kultur Etxeko areto nagusian. Maiatzak 9, barikua. 19:00.
► **Almoneda azoka**. Numismatika, antigoelekoak, filatelia... Areetako Geltokiko Plazan. Maiatzaren 22tik 25era.

GORLIZ

► **Ipuin Kontalariak**. Kultur Etxeko erakusgelan. Maiatzak 17, zapatua. 18:30.
► **La bandera de Gorliz y otros emblemas**. Udal pleno aretoan. Maiatzak 13, martitzena. 19:00.

LEIOA LEIOA

► **Liburu eta disko azoka**. Luis Bilbao Libano kalean. Maiatzaren 11ra arte.

URDULIZLEIOALURDU- LIZ

► **Orientazio ikastaroa**. Maiatzak 18, domeka. 11:00-17:00. Getxoko

Zenbat Gara elkarte

BILBO

San Vicente 2 48001 BILBO

Tel: 94 424 46 25 Fax: 94 424 28 02

ONDARROA

Iparragirre 10 48700 ONDARROA

Tel: 94 683 41 41 Fax: 94 613 44 43

www.kafeantzokia.com



Babes eta mehatxu

Ezin uka egiteko garrantzitsua egokitu zaiola bizitzan guardasolari: euriarengandik babestea gure buru-soin burges erosotasunzaleak. Ez da gutxi! Badaude, hala ere, arriskutsua deritzotenak, hirietako espaloi masifikatuetan haren kirten mehatxu-egileak aldamenekoaren begietatik zentimetro gutxira igarotzen direnean batez ere. Zelangura be, irudi ederrak eman ditzake guradasol apalak, ezta?

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



[berbetan]

1993an Euskaldunon Egunkariako zuzendari izendatu zuten 45 urteko tolosar hau. Ordutik, euskarazko egunkari bakarra, ontzi txiki baina duina, gidatu zuen komunikabide erdaldunen ozeanoan barrena, joan den otsailean epaile batek urperatzea erabaki zuen arte. Martxelo Otamendik atxiloketa eta torturak pairatu zituen orduan. Espetxetik irten zenetik, hamaika komunikabide eta ekitalditan agertu da, Egunkariaren itxiera zein jasandako tortura salatzen. Apirilaren 11n Algortan euskalgintzan dihardugun elkarteok antolatu genuen mahainguruan parte hartu zuen.

Martxelo Otamendi

Ontzirik gabeko kapitaina

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

—*“Euskarazko egunkaria beharrezkoa ote?”* zen Algortan egindako mahainguruaren izenburua. Zein erantzun ematen diozu galdera horri?

—Duela hamahiru urte beharrezkoa zela, duela hogei urte beharrezkoa zela eta seguraski, duela berrehun urte baino gehiago Londresen aurreneko egunkaria sortu zenean, euskaldunok egunkari bat sortu izan bagenu orain dozena erdi egunkari izango genituzkeela euskaraz. Baina bakarra daukagu. Orain, Egunkariaren hamahiru urteko ibilbideak erakutsi du egunkari bat ezinbestekoa dela euskarazko komunikabideen atala osatzeko.

—Proiektu berri baterako urratsak ematen hasi dira. Ez dakit zuk ondo ezagutzen duzun prozesu hori...

—Badakit zertan ari diren. Egunkariako langileak ari dira horretan eta nik segitzen dut Egunkariako langile izaten oraingoz. Bistan da Egunero sortu zutela Egunkaria itxi eta berehala, nahiz eta presidentea, konseilari ordezkaria, zuzendaria... Goardia

“Injustizia latzak egin dira eta guk ez daukagu erantzuteko tresnarik”

Zibilaren egoitzan egon. Gaitasuna izan zuten Egunkariak utzitako hutsune hori egun berean betetzeko. Orain, benetako apostua, merituz guztia emanda Egunerori, itxurazko denbora batean euskarak merezi duen bezalako egunkari bat merkatuan ipintzea da.

—Egunkari berriak Euskaldunon Egunkariaren ezaugarri berak eduki behar ditu, edo aldaketaren bat egon beharko litzateke...?

—Bai noski. Duela hamahiru urte Egunkaria sortu genuenean oso ezaugarri poli-

tak zeuzkan, eta bide beretik joan beharko luke. Logikoena da. Egunkaria itxi dute, beraz Egunkariaren hutsunea beteko duenak estilo bera izan behar du, euskaraz izan beharko du erabat, independentea izan beharko du, askotarikoa, modernoa, berritzailea, ahalik eta jende gehien bildu-

Argazkian, Martxelo Otamendi, Algortan eskaini zuen hitzaldia baino lehen >



Torturaren aurkako prozesua

Martxelo Otamendigaz egindako elkarrizketan, ezinbestean torturaren gaiaz berba egin behar genuen, espetxetik irten eta berehala, bai Martxelok bai Egunkariaren itxieraren polizi operazioan atxilotutako beste batzuek egindako salaketek hautsak harrotu dituzte eta.

—Esango nuke torturaren aurkako sinbolo bihurtu zarela, edo bihurtu zaituztela. Bat zatoz? —Bai. Nire aldetik badago prestutasuna torturaren gain aurpegia emateko. Ni torturatu egin naute eta oso haserre nago horregatik. Torturaren kontra bagaude, benetan, eta ez itxuraz, ahalegin bat egin behar dugu polizi jardun hori ezabatzeko. Nik askotan idatzi dut Egunkarian horren kontra, eta orain, neure larruan bizi izanda, are obligazio handiagoa daukat idatziz esan dudana ekintzez egiteko.

«Egia daramat aurretik, eta nik [epaitegian] esango dut ni torturatu egin nautela»

—Espainiako Barne Ministroak esan zuen, zuk eta beste batzuek torturak salatu zenituztenean, epaitegietan ikusiko zenuela elkar, eta zuk lasai erantzun zenion hantxe ikusiko zenuela ba... Bat-bateko erantzuna izan zen ala benetan uste duzu zer eginik dagoela?

—Ez daukat erantzuteko beste ezer. Berak esaten badu epaitegietara eramango gaituela, han ikusiko dugu elkar, baina nik egia daramat aurretik, eta nik esango dut ni torturatu egin nautela. Saiatuko gara egunotan torturaren kontra agertu diren norbanako eta talde horiek guztiak inplikatzan. Ez dadila izan, pelikula amerikarretan esaten den bezala, estatua ez dakit zein herritarren kontra. Behar duguna zera da: euskal gizartearen prozesu bat estatuaren kontra, torturengatik.

ko duena, euskaltzalea, nazionala, profesionala baina militantea... Orduan geneuzkan ezaugarri horiek ondo asmatuta zeudela uste dut. Prozesu honetan berrikusi egin beharko dira ezaugarri horiek, e? Baina nik uste dut oso finduta zeudela eta oso antzeko bide batetik jo beharko dela orain.

—Eta noizko egongo da egunkari berria kalean?

—Lehengoan irakurri nuen, teletipo batean, gure zuzendariordeak esaten zuela uda baino lehenagorako. Bestela urrian kaleratu beharko genuke, eta oso berandu da, denbora luzeegia da itxieratik.

“Beti egiten dira kinielak zein itxiko duten hurrengoa, baina ez genuen uste jo duten moduan joko zutenik”

—Zer gertatuko da Egunkariako langileekin? Orain artekoek jarraituko dute?

—Bai noski. Euskal Herriari eta euskarari itxi dietela Egunkaria, bai, baina ez dezagun ahaz Egunkariako langileei, kudeatzaileei, irakurleei eta akziodunei ere itxi egin dietela Egunkaria. Batzuek diotena irakurrita, ematen du Egunkaria haiei itxi dietela bakarrik. Ez, ez, langileei ere itxi digute. Irakurleok, iragarleek, langileok, harpidedunok, akziodunok... ekarri dugu Egunkaria honaino.

—Inpotentzia sentitzen duzu?

—Bai, noski, injustizia latzak egin dira

“Madrilek herri aldizkari guztiak itxi nahi baditu, itxi egingo ditu”

eta ez daukagu erantzuteko tresnarik. Oso kezkatuta nago, ematen duelako etsipen bat dagoela, Madrilo agindu guztiak derrigorrez betetzeko autoagindua eman diogula geure buruari. Hemen denei iruditzen zaie basakeria bat Egunkaria ixtea, baina era berean beti errespetatzen dira autoak, eta beti betetzen dira

aginduak. Beste aldetik, desconfiantza handia daukat justiziak zer egingo duen bai Egunkariaren aferan bai torturen salaketan; ez dut ikusten Espainian inongo auzitegirik Espainiako Gobernuari, Espainiako Goardia Zibilari oldartzeko pres-tutasunarekin dagoenik.

—Benetan, susmatzen zenuten Egunkaria itxi zezaketenik?

—Ez. Beti egiten dira kinielak zein itxiko duten, eta orain ere badaude komentarioak hurrengo operazioa zeinen kontra egingo duten, baina ez genuen uste jo duten moduan joko zutenik. Zeozer egon zitekeela bagenekien, eta zer egin

genezakeen komentatzen genuen; aurretik harturiko neurri horiei esker, hein batean, egin ahal izan zen egunkari bat hurrengo egunean.

—Zein da, zure ustez, estatuak daukan azken helburua honelako operazioekin?

—Euskal Herriari erakustea hori dela hemendik aurrera gertatuko dena baldin eta euskaldunok tematzen bagara Euskal Herriaren etorkizuna erabakitzeke esku-bidean. Mezua ez da pertsona baten kontra, gobernu baten kontra, alderdi baten kontra, ez da Egunkariaren kontra... Mezua da: “Jaun-andreok, tematzen bazarete

autodeterminazioa, autogobernua, etorkizuna erabakitzeke eskubidea eta horrelakoak aldarrikatzen, hau da etorriko dena, eta jakin ezauze kapazak garela euskal kulturaren ninietako bat ixteko, staff-ekoak atxilotzeko, guztiei tratu txarrak emateko, batzuek torturatzeko, eta gainera batzuek kalera ateratzeko gero kalean konta



“Euskal Herrian instituzioren batek esan beharko dio Madrili ezetz”

dezaten zer egin dugun, denek jakin dezaten zer espero daitekeen”.

—Agian galdera inozoa da, baina, zer egin daiteke hau berriro ez gertatzeko?

—Zer garantia daukagu ez dutela EITB itxiko? Ez daukagu. Madrilek izendatuko du EITBko zuzendari berria, itxi ez dezaten? Ez dakit. Hori Madrilen esku dago. Gure jendeak gauzak ondo egin zituen lehen eta ondo egingo ditu orain, gardentasunez, baina Madrilek herri aldizkari guztiak itxi nahi baditu, itxi egingo ditu, Aita Santua jarrita ere Topaguneko koordinatzaile nagusi. Hori

bere esku dago. Egin behar ez duguna da bere esku dagoenez ezer ez egin. Jarraitu behar dugu gauzak egiten. Eta prestatu behar dira erantzunerako tresna batzuk, tresna instituzionalak. Euskal Herrian instituzioren batek esan beharko dio Madrili ezetz, ez dituela bere aginduak beteko. Euskal Herriko finantza-erakundeak, korporazio industrialak, egitura kultural eta mediatikoak ixten hasten badira, halako batean bakarren batek esan beharko du: “Zu, kitto, dauzkagun baliabide guztiak jarriko ditugu hori eragozteko”. Ondo ulertzen dakienak ez du azalpen gehiagorik behar. m

TRUK KIROLAK

AUPA! ATHLETIC

KAMISETA
HELDUEN NEURRI GUZTIAK
S • M • L • XL • XXL
54,06 €

EUSKAL SELEKZIOA

KAMISETA
HELDUEN NEURRI GUZTIAK
S • M • L • XL • XXL
51,03 €

HEI HEZAZIOU ETA EGUN GUZTU BARRU
ZURE ETXEAN

3,67 €
BIDALKETA GASTUAK

deitu!

TRUK

902 45 12 12
IRUÑEA • EUSKAL HERRIA

Gu ere lekuko

Argazkiak: Asier Mentxaka

Apirilaren 8 eta 9an, gau eta eguneko saio bikoitzan, guretik igaro zen Korrika. Horren oroigarri polita eduki gura genuela eta, gure argazkilari prestua antolatzaileen furgonetara igon zen, Uribe Kostan lekukoa eroan zuten guztien irudi bana lortzeko asmoz. Ia lortu zuen. Seiren argazkiak falta dira (parka biezagute), baina hala ere hasierako helburua, uribekostarror Korrikaren 13. edizioko parte hartzea islatzea alegia, ondo baino hobeto bete dugula deritzogu. Horren lekuko, hurrengo orrialdeetako irudi sorta bikaina.







Hiruzpalau urteren buruan etorkin oldea etorri da Euskal Herrira, eta Uribe Kosta ez da salbuespena izan horretan. Gurea baino herrialde pobreagoetatik datozen etorkinez dihardugu noski, beharrak eraginda datozenez. Euren eguneroko errealitatearen gaineko azterketa samurra egin dugu, eta ondorio argia atera: bizimodua, orohar, bertoko bizilagunok baino latzagoa daukate. Euren jaioterrietako egoera jasangaitzetatik ihesi guztiz bestelako kultura batera etorri behar izateari, lana eta bizilekua aurkitzeko oztopoak, familiarik urrun egon behar izana eta gizartean txertatzeko zailtasunak gehitu behar zaizkie. Badaude, hala ere, horiek guztiak arintzen laguntzeko lanean dabiltzan bertoko kristauak; horiek izan dira, batez ere, ondoren datorren informazioaren iturria.

Badatoz...

Etorkinak gurean

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Ezer barik etorten dira bizimodu duin baten bila, eta beharizan nagusi bi asetzeko premia larria edukiten dute: etxea eta lana. Lehenengoagaz arazo askotxo egoten dira; Algortako Caritaseko koordinatzaileak, Paco Castellsek, urteak daroaz esku hutsik ailegatzen zaizkigun etorkinei laguntza ematen, eta beraren berbak adierazgarriak dira: *“Euren desioa lehenbailehen atzera*

«Ekuador, Kolonia eta Boliviatik datoz batez ere»

etxera joatea da. Gainerakoak ez die inporta. Ahalik eta diru gehien pilatu gura dute ahalik eta denbora laburrenean. Beraz, etxe bakoitzean makina bat lagun sartzen da, gastuak arintzeko”.

Duela hiru urte hasi zen etorkin mor-doa etorten Uribe Kostara, batez ere Ekuador, Bolivia eta Kolonbiatik (gaur



Etorkin kopurua eskualdeko herri bakoitzean

- Barrika.....25
- Berango.....170
- Erandio.....450
- Getxo.....2.945
- Goriiz.....119
- Leioa.....999
- Sopela.....312

Datu hauek gutxi gora-beherakoak dira; izan ere, etorkin kopurua etengabe aldatzen da. Beraz, guk itaundu genuen momentuan zeuden datuak eman zizkiguten udaletxeetako langileek. Galdeketa apirilean egin genuen. Arrazoi batzuk direla-eta, ez ditugu Lemoiz, Plentzia eta Urdulizeko datuak lortu.

egun egoera latzak pairatzen dituzten herrialdeak). Hasieran ez zuten zailtasunik eduki etxebizitzak topatzeko, baina jende gehiegi elkarregaz bizitzeak ate asko itxi dizkie. *“Hainbeste jende etxe batean egonda, etxeak apurtu egiten dira, zarata gehiegi dago... Orain, pisuen ugazabek ez dute euren etxetan etorkinik egotea gura izaten”*, dio Castellsek.

Bigarren erronka handia lana topatzea da. Lan-baimena eskuratzeko hamaika oztopo edukita, kontraturik gabeko beharretan jardun behar dute. *“Emakumeentzat ez da hainbeste arazo”,* azaldu du Castellsek, *“neskametzan aritzen dira eta. Izan ere, sektore horretan dabiltzan ia guztiak, gaur egun, etorkinak dira”.* Etorkin askok gizarte-laguntzetara joatea beste

irtenbiderik ez dute. Horretarako baldintza bakarra erroldan egotea da eta, paradoxa bada ere, berton bizitzeko baimen barik ere lor daiteke erroldan sartzea. Helbide bat baino ez da behar horretarako.

Instituzioentzako erronka berria

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko gizarte-laguntzako beharginakaz berba egin dugu etorkinen errealitateari zeozer hurbildu gurean. Eman dizkiguten datuak esanguratsuak dira. Mankomunitateko zazpi herrietan oinarritzko errenta kobratzen duten bizilagunetatik %12 atzerritarrak dira, eta larrialdietarako dirulaguntzak kobratzen dituztenetatik, %9, atzerritarrak biztanleria osoaren %5-era ailegatzen ez badira ere. *“2002. urtetik aurrera, etorkin kopurua modu ikusgarrian hazi da”,* diosku Mankomunitateko langile batek, *“eta gehien-gehienak ezkutuko ekonomian murgilduta daude”.* Paco Castellsen ustez, instituzioek sekulako ahalegina egin behar izan dute egoerara egokitzeko.

«2002tik, etorkin kopuruaren hazkundea ikusgarria izan da eskualdean»

Bizilekua eta lanaz gain, etorkinek, beste edozeinek bezala, ase beharreko premia gehiago dituzte. Seme-alaben hezkuntza da bat, osasun-arreta beste bat. Gaur egun, arlo bi horietan arazo handirik gabe moldatzen dira gurera etorritakoak, duela pare bat urte gauzak hain errazak izan ez ziren arren. Beraz, lan, etxe, osasun eta irakaskuntzarenak konponduta, eurentzat arrotza den gizartean txertatzea da gaingiditu behar duten azken oztopoa. Horretan, baina, asko dago egiteke oraindik. Guztion aldetik. m



orain
hamabostean
behin

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37

dirulaguntzak

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / Ameiti 6, 4. solairua 5. bulegoa 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net
tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31
bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

zineeskola

Oskar Fernández

Zinema sexista ote?

Zinema orain dela mende bat sortu zen, 1895 urtean hain zuzen ere. Hasieran, zine-mak kontatzen zituen istorioak ezin sinpleagoak ziren. “Bizitzaren erre-alitateko eszenak” deitzen zieten. Hura nahikoa zen lehen zinema-ikusleentzat, baina ekoizleak bere-hala hasi ziren istorio konplexuago-ak garatzen, eta lehenengo argu-mentuekin batera emakumearen eredia zabaltzen hasi zen irudi batetik bestera. Eredu hau, jakina, garai hartako testuinguru sozio-politikoaren araberakoa zen. Ezin dugu ahaztu garai hartan, eta hamarkada luzetan, gizonak eta gizonentzat eginak zeudela filmak. Beraz, Europako eta Estatu Batuetako zinemagintzak lau haize-etara hedatzen zuen emakume iru-dia eta eredia gizonen burmuine-tan egositako ideiak baino ez ziren. Hala ere, emakumearen ikuspegi “instrumental” hau ez zuten zine-maren aitzindari horiek asmatu, jakina, aspaldiko gauza zen. Istorio sinple horiek triangelu batek osat-zen zituen: protagonista (gizon ona), antagonista (gizon gaiztoa) eta emakumea (protagonistaren saria). Eskema ezin sinpleago hau literaturatik hartuta zegoen, eta mundua bera bezain zaharra da: ekialdeko literatura zaharrean Homerok egindako lanetan ere aur-kituko dugu. Lehenengo emakume paper arrakastatsua Mary Pickford aktoreak antzeztu zuen. Emakume esanekoa eta sinesbera zen. Filmetan irudi hau erakutsiz Mary Pickford ikaragarri aberats egin zen. Baina beraren ostean Hollywood-ek emakumearen irudia goitik behera aldatu zuen: “banpi-resa” deitutako rola jaio zen. Paper horretan jardundako lehenengo aktore ospetsua, zalantzarik gabe, Theda Bara izan zen, eta beraren atzetik gehiago etorri ziren: Barbara La Marr, Pola Negri eta beste hain-bat. 4

James Bond-en

alternatiba

Enrique Gómez eta Oscar Belategi algortarrak dira Getxoko **Cinena Paradisoko** “animatzaileak”

“Zazpigarren denboraldia dugu hau, oker ez banago”. Enrique Gómez eta Oskar Belategi zinemazale handiak dira, eta zale-tasun hori modu praktikoan garatu dute; euren proposatzen dituzte Getxoko Kultur Etxeak antolatzen duen Cinema Paradiso ziklorako filmak, eta emanaldien osteko mahai-inguruak zuzentzen dituzte.

Guk Enriquegaz egin dugu berba. Dioenez, *“Cinema Paradisoko filmak ikus-tera etorten direnek fidelotasun handia dau-*

«Datorrenak badaki seriotasunez aukeratzen ditugula filmak»

kate, ez dute hutsik egiten”. Filma ikusten joan direnen %10-edo lotzen da gero-ko mahai-ingurura; *“ez dago batere txarto ba-riku gaua izateko”.* Izan ere, filmak gaue-ko hamarretan hasten dira, eta mahai-ingurua amaitu, orduko hamabi eta erdiak edo ordu batak jota. Hori bai, ia beti pertsona berak gelditzen gara ordura arte. Enriquek kontatu digunez, adiskide-tasun handia sortu da, honezkero, bertan parte hartzen dutenen artean. *“Askotan, amaierako berbalditxoa hobe- izaten da pelikula baino”.*



Enrique Gómez

Cinema Paradisoko film batek baldint-za bi bete behar ditu: bata, derrigor-derri-gorrezkoa, jatorrizko bertsioa izatea, azpiti-tuluakaz; bestea, ahal den heinean *“areto komertzial handietan ematen dituztenen alternatiba izatea”.* Enriquek txantxetan esaten duenez, James Bond-en alternatiba. *“Jaialdi baten sariren bat jaso edo zirkuitu independenteetan arrakasta izan dutenak... horrelakoak bilatzen ditugu”.*

Jeneralean, ikusleek gozatu egiten dute-la dio Enriquek. *“Datorrenak badaki serio-tasunez aukeratzen ditugula filmak”*, aldarri-katu du. Barikuro, Getxo Antzokian. m

Ez galdu > Otilia

(Dana Rotberg)

Cinema Paradiso • Non: Getxo Antzokia • Noiz: maiatzak 16, barikua • Ordua: 22:00



Dana Rotberg mexikar zine-zuzendariak 2001 urtean Otilia izen-burua duen filma zuzendu eta gidoia egiten ere parte hartu zuen. Istorio honek Sergio Galindo idazle mexikar ospetsuak idatzitako izen bereko eleberrian du oinarria. Otilia bakardade gorrion bizi den emakumea da. Patuak eta gizartearen eragin zikinak jendeak gehien mesprezatzen duen lanbidera eraman dute. Gizon zeken eta ilun batekin ezkontzen da, behartuta. Gero, legetik ihes egin duen hiltzaile batez maiteminduko da, baina Otiliak ez du haren-gandik ezer lortuko. Bizitza garratz eta latzak tragedia bortitz batera eramaten du emakume hau. Sundanceko Zine Jaialdian Dana Rotberg zine-zuzendari andre-ak NHK saria lortu zuen.

Algortako ZEI taldeak

disko berria



Argazkian, taldeko kideak zuzeneko kontzertu batean

ZEI taldeak 1992 urtetik darama musika egiten eta hiru disko kaleratu ditu orain arte. Lantegia Algortan daukate, baina euren musi-ka nork bere etxean landu behar izaten dute batik bat, bata Bartzelonan bizi delako, bestea Arrasaten, beste bat Algortan... Alik (taldeko baxujolea eta abeslaria) esaten duenez *“oso en-tsegu gutxi egiten dugu egoera berezian gaudela-ko, beraz bakoitzak grabazio bat eramaten du etxera eta bere kabuz egin behar du lan”.*

ZEIren lehenengo lana, *“Seguiremos ca-yendo”*, Discos Suicidasek argitaratu zuen 97an. Hiru urte geroago, *“Entre enfermos hay contagios”* diskoa atera zuten eta hiru-garrena, *“Historias de la vida”*, 2002ko aben-duan kaleratu zuten. Azken biak estudio

berean grabatu dira, Sestaoko Estudios Evolution-en. Berrikuntza bat dakarte aurtin: diskoak zigilu berria daukala, Sons Rock galiziarra; izan ere, Galizian bertan abesti bat grabatzeko aukera eduki zuten. *“Historias de la vida”* -k dauzkan hamabost abestietan estilo propioa landu du ZEI taldeak..

Musikariak datozen kontzertuei begi-ra dagude orain. Hurrengoa Getxoko An-dra Mari jaietan izango da. Baina, udara begira, iaz egin zuten ibilaldia gustura egingo lukete berriro, hots, Galizia, As-turias, Kantabria... *“Iaz jaialdi batzuetan parte hartu genuen eta jende gutxiren au-rrean jo arren oso gustura ibili ginen”.* m

diskoak

Greatest hits
Terence Trent D'Arby
Sony Music



Milanen bizi den New Yorkeko abeslari honek hindu erlijioarekin bat egin du, eta hori dela eta, Sananda Maitreya du izena orain. *Wildcard* izenburuko diskoa kaleratu berri du, baina bere abesti arrakastatsuenak (19 guztira) biltzen dituena ere ia aldi berean argitaratu da. TTD-k 1987-1988an izan zituen garairik oparoenak.

100th window
Massive Attack
Virgin



Trip hop-aren aitzindari izan zen taldea itzuli da lau urte igaro ondoren. Robert Del Naja buru daukan hirukotea-ren disko berriak 9 abesti dauzka, luzeak (guztira, 74 minutu) eta aurrekoak baino askoz ilunagoak. Sinead O' Connor-en ahotsa entzun daiteke *Special cases* kantan; beste batean ere ageri da abeslari irlandarra.

Hain zuzen
Tapia eta Leturia
Gaztelupeko Hotsak



Hamahiru abesti dituen disko honek sasoi berri bati ematen dio hasiera Tapia eta Leturiaren musi-kagintzan, bikotea laukote bihurtu da-eta orain gutxi. Aspaldiko eta gertuko kantuak aukeratu dituzte eta zuzenean grabatu Nafarroako Azkarate herrian, Ruper Ordorikaren zuzendaritzapean.

esaterikbadut

Esti Ezkerra

Liburuaren eguna

Txikiak zirenean, eskolan mojen laguntzarekin josten zituzten oihal zati zarpail haiek ziren amei beren egunean oparitzeko zuten gauza bakarra. Aste bete ematen zuten horretan, hari politenak aukeratu eta oihal gainean marraztu beharreko irudia pentsatzen. Halaxe kontatzen du gure amak, urtero, amaren eguna iristen den bakoitzean. El Corte Inglesen iragarki okaztagarri horiek zappinga egitera bultzatzen gaituztenean. Hain zuzen, El Corte Ingles izan zen halako ospakizunak sustatzen hasi zen lehena. Ama eta aitaren egunaren ondotik, maiteminduen iritsi zen. Gero urtaro aldaketan parafermalia. “Edozerk izan dezake bere eguna, horrek salmentak handitzea baldin badakar”, dio El Corte Ingleseko marketing arduradunak. Martxa honetan, hainbeste egun ospatu behar eta txiki geratuko zaigu egutegia bera.

Baina egun guztiak ez dira berdinak. Batzuk “zilegiagoak” direla pentsa daiteke. Liburuarena, esate baterako. Irakurketa ohitura ez da gustako litzaigukeen bezain ona. Liburu salmentak ere lerro bihurrituak marrazten ditu estatistika grafikoetan. Beherako joera erakutsiz azken urteetan. Liburutegietako mailegu sistemak bestelako errealitatea agertuko baligu sikiera! Marka dezagun goriz liburuaren eguna, eta goazen hura ospatzera! Batzuk poztu eta guzti egiten dira horrelakoekin. Ni neu, berriz, deprimitu. Deprimiturik igaro ditut handik eta hemendik, kalean zehar barreiatutik dau-den karpak. Deprimitu aste beteko kontu horrekin batzuek euren kontzientzia lasaitzea lortu dutelako. Postuen artean, El Corte Ingleseko stand-ak ikusteak ez dit aldarte hobetu. Behin egun horiek igarota, nor gogoratuko da literaturaz? 3

Liburu baten balioa

Liburu baten truke ordaintzen dugun dirua zelan banatzen den aztertu dugu

Kepa Murua zarautzarra idazle eta argitaratzaile da aldi berean. Ondo ezagutzen du, beraz, literatur merkataritzaren mundua. Berari galdetu diogu dendan liburu baten truke ordaintzen den dirua zer poltsikotara doan, eta holan erantzun digu: *“Nagusiki, bitan banatzen da: %50 argitaletxearentzat eta %50 banatzailearentzat. Baina ez beti. Asko negoziatzen da eta kontratu mota desberdinak daude”*. Erdi bi horiek, gero, zati txikiagoetan banatzen dira. Banatzaileak liburudendaren ugazabagaz banatzen du, esate baterako. *“Banatzaileak, azkenean, liburuaren prezio osoaren %35 eskuratzen du, eta liburu-saltzaileak %15”*, dio Muruak. Kopuruok, hala ere, bataz

bestekoak dira. *“Ez dira berdin Corte Inglés edo auzo bateko denda txikia”*. Azalera handiek portzentaje handiagoa irabazten dute jeneralean.

Idazleak, %10

Argitaletxearen erdiari dagokionez, azkenerrako laurdena ere ez da izaten askotan, Muruak dioenez: *“Hasteko, parte bat idazleak eroaten du, liburuaren salmentagatik lortutakoaren %10-edo. Idazle ezagunek, gainera, kopuru finko bat ziurtatuta daukate, liburua ondo saldu ala ez. Bestalde, argitaletxeak bere gain ditu diseinu eta zabalkunde-gastuak. Liburua ondo saltzen bada, argitaratzaileak %20 irabazten du, baina txarto salduz gero, dirua galtzen du”*.

Estatu espainiarrean, banatzaile eta liburudendek behin-behinean erosten dituzte liburuak ia beti. Hau da, saltzen ez dutena argitaratzaileari ematen diote atzera. *“Eta guretzat da galera”*, diosku, argitaratzailearen defentsan, Muruak. m

«Liburua ondo saltzen bada, argitaratzaileak %20 irabazten du»



Mike Nedo > Pentsatzen duen adimena

“Gizarte hau erridikulua dela erakusteko jaio nintzen”



Guggenheim-ek “bahitutako” koadroaren askatasuna eskatzeko Mike Nedok egindako kamiseta

Zeresan ugari piztu ditu Mike Nedo pertsonaia-talde misteriotsuak urtarilaren 21ean Guggenheim-era sartu eta Amodiozko Ziriflipa margolana museoko hormetan eskegi zuenetik. Ordutik, besteak beste, “bahituta” geratu zen koadro haren askatasuna aldarrikatzen dihardu, Berangon jaialdia eta guzti. Internet dauka gotorleku, eta euskarri hori erabili dugu guk ere elkarriketa sasiklandestino hau egiteko.

—Nor da, edo nortzuk dira, Mike Nedo? Zergatik eta zertarako jaio zen?
—Mike Nedo pentsatzen duen adimen bat da, mundura etorri dena gizarte hau erridikulua dela erakusteko.
—Zer da zuretzat artea?
—Artea kuantifikatu ezin daitekeen izate abstraktoa da. Balio praktikorik gabeko zerbait sortzeari uko egin ezin diona artea egiten dabil. Ondoren, interesgarria izaten da sortutako horrek gainerakoengan nola eragina duen aztertzea.


—Zure web orrian “Begi gaixoa” bideoaren prestakuntza iragarri duzu. Noizko egongo da ? Eta zer esango du?
—“Begi gaixoa” telebistak “izorratutako telefono” batek bezala informatzen duela erakutsi gura duen bideo-zapping bat da. Hilabete beharko dut burutzeko, oso lanpetuta nabilelako.
—Asmo gehiagorik gogoan?
—Apiril amaieran margolan berri bat aurkeztuko dut Mami Panchitan, Bilbo Zaharrean zaharbertitutako areto batean.

“Iraultza” izena edukiko duen beste bat ere amaitzen ari naiz. Gainera, nire laguntza taldeko kide batzuek fotonobela euskarrian egiten ari diren biografia baterako baimena eman dut duela gutxi. Azkenik, Amodiozko Ziriflipa askatzearen aldeko jaialdiko emanaldiak bilduko dituen CD bat argitaratzeko asmoz nabil.

“Telebista ez da eremu atsegina niretzat”


—Zein da zure azken helburua? Dibertitzea, salatzea, eraldatzea, hori guztia batera, beste zerbait...?
—D.D.T. [*Gaztelaniaz, “dibertitzea, salatzea, eraldatzea” berben lehen letrak*]. Bete-betean asmatu duzu. (Txiste hau pikutara joango zaizu erantzuna euskaratzean, baina benetan asmatu egin duzu).
—Zergatik ezkutatzen zara Internet-en?
—Telebista, ideiez baino, irudiez arduratzen da, eta beraz ez da eremu atsegina niretzat. Inoiz, Alvarok (bozeramaleak) edota Amodiozko Zirifliparen margolariak berba egin dute nire izenean, baina metodo hori nahiko korapilatsua da. Irratia gustoko dut, baina Mike Nedok ez dauka ahotsik. Internet da edukiari protagonistari baino garrantzi handiagoa ematen dion komunikabide bakarra. Gainera, hemendik erantzun egin diezaieket UK bezalako hedabide inprimatuei; horiek dira, azken batean, informazioa erarik lasaienean eskaintzen dutenak.
—Nazkatuta egongo zara komunikabideekin. Zer gustatuko litzaizuke kazetari batek galdetzea?
—Tarte hau koadroak preso jarraitzen duela gogorarazteko eta Jorge Oteizari eta Martxelo Otamendi eta enparauei musu bat bialtzeko erabili nahi dut. m

liburuak




Atzo
Agota Kristof
Alberdania

Kontakizun hau tristea bezain samurra da, bizitza bezain gordina, eta hala ere, oso gustura eta erraz irakurtzen da. Horixe da Kristof-en trebezia, istoriak kontatzen oso ondo dakiela.



Eulien bazka
Hasier Etxeberria
Susa

1957an Elgoibarren jaio zen kazetari eta idazlearen zortzigarren liburuak zati txikiena dauka agerian, izozmendi bat bezala. Ia ezer ez da dirudiena, iruzur egin ohi digu eta begi bistakoa denak.



Uda betiko balitz
Xabier Mendiguren Elizegi
Elkar

Poza da liburu honetako sentimendu nagusia. Bizitzeko grinaz beterik daude bertako protagonistak, 12, 14 eta 16 urteko neska-mutilak. 76tik 80ra bitartean hedatzen da nobela honetako denbora.




BEREHALAKO
MEZULARITZA ETA GARRAIOAK

% **94 430 73 19**
Faxa: 94 430 90 18

Elizondo, 1 (Villamonte) • 48991 GETXO

BILBO MICRO




“1982az geroztik
soluzio
informatikoak
eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO
Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213

[sarean]

Denon artean indartsu

Zenbait bolondresen arteko ekimenaren bitartez **elkarlanean** jarduten dira hainbat ordenadore

Ordenadorea zenbait minutuz erabili gabe igarotzen dugunean “pantalla-babesle” delakoa agertzen zaigu. Pentsa ezazue, alditxo hori, gure ordenadoreak baliatuko balu minbiziaren aurkako proteina batzuk aztertzeko, edota estralurtarrak topatzeko. Pentsa, gure ordenadoreak ez ezik, beste milaka (edo milioika) ordenadorek ere gauza bera egingo balute. Denon artean, inoiz sortu den kalkulu-makina indartsuena sortuko genuke, benetako ordenadore-ama-rauna. Horixe da “banatutako konputazioa”, eta badira alor honetan zenbait ekimen. Seti@home (<http://setiathome.ssl.berkeley.edu>) guneari Areciboko



irratiteleskopiotik jasotako seinaleak aztertzen ditu eta Oxford Unibertsitateko talde batek minbiziaren aurkako botikaren bila dihardu (http://ar.geocities.com/lucha_contra_el_cancer). Zein aukeratuko duzu? m

webgida

ECOL

>tira.escomposlinux.org

Internet-en badira zenbait komiki famatu. Horra hor, adibidez, Dilbert-eri egunero gertatzen zaizkion pasadizoak (nork ez du bere burua inoiz horrela sentitu?). Ecol Internet, ordenadoreak eta software askeari buruzko tira komikoa da. Bere historio gehienak irudimen handiz eginak dira eta egileak bere buruari barre egiten dakielako erakusten du.

THE IMAGE

>www.theimageclub.com

Barikueta ‘techno’ gogorrena eta zapatueta ‘house’ xamurrena. Hauxe da ‘The Image’ Berangoko dantzalekuak aste-buruetarako dakarkigun plana. Webgunea bisitatzea merezi du. Dantzalekuaren beraren datuez

Sarean aurkitu dugu > In fraganti



Internet-en irudi harrigarriak edo barregarriak topatzen baduzu, bidali UKra. Interesgarrienak aldizkarian hilabeteko argitaratuko ditugu. ukaldizkaria@telefonica.net

Telebista >

Non ote dago doitze-karta?

Gaur egun **ia inon** ageri ez den telebista-ikur honek kateen seinaleak hartzeko balio du

Dagoeneko ez dugu telebistan ikusten, ez garai baten agertzen zen bezala behintzat. Doitze-kartaz egiten dugu berba. Esanahi gogorazlea alde batera utzita, eginkizun bi bete ohi ditu: alde batetik, telebista-kalalen seinalea behar bezala jasotzeko erabiltzen da, eta bestetik, pantailaren kolorea egokia dela ziurtatzeko ere balio du (ez oso zurbila, ezta bizi-bizia ere).

Doitze-karta deskribatu behar badugu, mota bi daudela esan genezake. Arruntenak zortzi barra zut ditu, zurutik beltzerainoko kolore oinarritzko; eta ikusgarrienak, berriz, hainbat irudi geometriko (laukiak, gehienbat) dituen biribil handi bat da. Doitze-karta horiek telebista-katearen izena edo logotipoa, ordua eta sintonizatzen den kanalaren zenbakia erakusten dituzte; atzetik, musika ere izaten dute entzungai.

Gaur egun, gure etxeetan ikus ditzakegun telebista-kate guztiek 24 orduz igortzen dute, etenik gabe; gauzak horrela, doit-

ze-kartak ez dauka zentzu handirik. Zailantzarik gabe, telebistako ezaugarri horrek iraganeko kutsua du, hainbeste katea ez zeuden garaikoa eta emisioak arratsaldeko 3etan hasi eta gaueko 12etan bukatzen zirenekoa, alegia. Hala ere, oraindik badaigo doitze-kartaren oroimina duen lagunik eta telebistako gauzarik onena eta interesgarriena hura zela uste duenik. m



[komunikazioa]

Ikusi >

Sorginen laratza

Xabier Euzkitzek saio lotsagabea eta umorez beteaz zuzentzen du egunero gaueko 10:30etatik aurrera ETB-1en. Ordubate eta erdiz, era guztietako gaiak jorratzen dituzte bertarutzen diren gonbidatuek, inguruan etengabe aurrera eta atzera saioko kolaboratzaile eroak dabilzkiela (Klaudio Landa, Martxelo Sotes, Estitxu Fernández eta abar). *Sorginen laratza* ez da atzo goizekoa Euskal Telebistan; hasiera batean astelehenetik egunera ematen zen programak 400. saioa ospatu zuen apirilaren 3an.

Irakurri >

Ipurbeltz



Euskal komikigintzan historia dugu Ipurbeltz umeentzako hilabetekaria. Iaz bete zituen 25 urte, eta antologia argitaratu zuten hori ospatzeko, bertan jardundako komikilariak egin dizkieten elkarrizketak eta guzti. Jon San Sebastian koordinatzaileak azaldu digunez, azken boladan testu gehiago sartzen hasi dira, “zientziaren inguruko gai arinekin eta egunerokotasunari lotutako albisteekin”. Ipurbeltzek 36 orrialde dakartza eta Euskal Herri osoan banatzen da, harpidetzaz batez ere.


Harremanetarako: 943 21 83 00

uhinakFM

Getxo Irratia	87.6
Koska Irratia	89.8
Radio Euskadi	92.4
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
eitb irratia	100.1
Bizkaia Irratia	102.6
Euskadi Irratia	104.4
Pititako Irratia	107.0

Gure espezieak >

Hegoaldeko suge leuna



- **Izen generikoa:** Coronella girondica
- **Izen arrunta:** Hegoaldeko suge leuna
- **Bizilekua:** Landazabala; batez ere, hesi eta sasietatik hurbil.

Iparraldeko suge leuna baino sendoagoa eta handiagoa da. Sabela zuriska dauka, xake-taula itxura ematen dioten orban beltzez apaindua. Bizkarrean, berriz, arre-urdina edo gorria dira nagusi, eta ezkatak leunak ditu.

Landazabalean ibiltzen da; batez ere, hesi eta sasietatik hurbil. Espezie hau ikusi nahi bada, komeni da landaretzarik gabeko alde harritsuetara joatea. Esate baterako, kostaldeko bidea ezinhobea da horretarako.

Mikrohabitat harritsuak ditu gustuko. Harri lauen azpian ostenduta edota hauen gainean eguzkitan egon ohi da. Egun osoan ikusi ahal badugu ere, oskorrian ibiltzen da agerian gehien bat. Haiatz eta harresietako arrakaleetatik arin mugituz, ugaztun txikiak (apodemus, microtus), txoriak eta lazertidoak harrapatzen ditu. Jaioberriek 10 cm inguruko luzera izaten dute eta sugandila txikiez, hauen buztanez edota

«Kosk egin dezakeen arren, hegoaldeko suge leuna ez da arriskutsua gizakiontzat»

ornogabez baino ez dira elikatzen. Kosk egin dezakeen arren, ez da arriskutsua gizakiontzat.

Suge hau Uribe Kosta osoan dago zabaldua, baina kostaldean aurki daiteke batez ere. Bestalde, eta kopuru murrizagoan bada ere, barrialdeko zelaietan ere ikus daiteke, beti harresi edota harri pilatuen artean.

Gaia > galipota

Hortxe dago oraindik


Arrain gutxi dago itsasoan, arrantzaleek diotenez, eta bainu hartzea debekatuta dago oraindik

Iraken aurkako erasoak, Egunkaria itxetak eta eguneroko bizimoduak ia ahaztuarazi digu, baina duela hilabete gutxi Prestige untzia hondoratzeak hondamendi ekologiko latza eragin zuen Galizian eta Kantauri itsasoko kostaldean. Eta dagoeneko ondorioak lehen bezain ikusgarriak ez badira ere, egon hortxe daude oraindik.

Apirilean, hondamendia dela-eta sortutako euskal batzordeak gure kostaldeko uretan bainua ez hartzeko gomendioari eutsi zion. Bizkaia eta Gipuzkoako kostalde osorako balio du gomendio horrek, eta beraz, Uribe Kostakorako ere bai.

Bestalde, arrantzaleek aukera daukate, martxoaren 17az geroztik, itsasora irteteko, baina salatu dutenez, ez dago arrainik. Berdela harrapatzen ibili direnek aurreko urteetan baino askoz arrain kopuru txikiagoa hartu dute aurtongo denboraldian. Ander Berreteaga Armintzako Kofradiako presidenteordeak esan digunez, “ez dugu arazorik eduki hondoko

arrantzagaz, baina bai berdelagaz. Eskualdeko arrantzale batzuk lupinatan ibili dira eta utzi behar izan dute, ez zegoen eta. Orohar, arrain migratzaileen kopurua asko gutxitu da”. Berreteagak inoiz ez ikusitako beste gertakari baten berri eman digu: “Betidanik, nekorak itsasadarreko uretan utzi izan dira [berak Plentzian dauka itsasontzia], ontzitik eskegita, saldu bitartean. Aurton, baina, hala utzi direnak sei orduan hil dira. Uretan zeozer dago, ikusi ez arren”.^m



Argazkian, Ander Berreteaga, Plentziako arrantzalea

Sasoia da > zapelatz arrunta

bikotekide bila dabil garai honetan hegazti hau



Zapelatz arrunta neurri ertaineko harraparia da. Askotan ikus dezakegu leku deigarriren batean geldirik; izan ere, ikuspegi zabaleko lekuetan zain egonda aurkitzen du harrapakina. Hala ere, zapelatz arruntak zeruan biraka eta garrasika ibiltzen dira lurraldearen jabetza aldarrikatzeko. Sasoi honetan eztei-hegaldiak egiten dituzte. Bikotea bata bestearen inguruan biraka hasten da, eta planeoak, hegalaq itxita goitik beherako jaitsierak, elkarrekin egindako bira azkarrak eta bestelako mugimenduak egiten dituzte. Galdu behar ez dugun ikuskizun paregabea.



Argazkian, Josune Goikoetxea eta María Cochón, Arteako dendan

Ana Cochón > Atenea moda-dendaren sortzailea

Loditasuna ere edertasuna da

Moda kontuak ez dira *Danone* gorputzak dituztenentzat bakarrik. 90-60-90 neurri ia ezinezkoak ez dauzkaten neskek ere badute azken joera berrienak janzteko eskubidea. Atenea moda-denda arduratzen da horretaz.

Ana Cochón galiziarra Urdulizen bizi da eta Atenea izeneko denda-katearen sortzaileetako bat da bere amarekin batera; etxeko negozioa da guztiz, bost ahizpak ere dihardute-eta beharrean. Duela zazpi urte hasi ziren arropak saltzen, “jendeak gero eta neurri handiagoak eskatzen zizkigulako hasi ginen neurri bereziko arropak (40tik 80ra bitartekoak) saltzen”. Egun, lau denda dauzkate: Areetakoa, Artea merkataritza-gunekoa, Basaurikoa eta Gasteizkoa.

Lodiek janzten dituzten arropen inguruan hamaika topiko esan ohi dira: ez diotela modari jarraitzen, beltza dela kolore nagusia... “Ados nago”, diosku Ana Cochón-ek, “batez ere emakume nagusien kasuan, janzten duten arropa oso klasikoa delako. Gizen dauden neska gazteek, berriz, arropa berriagoak dituzte nahiago. Baina beraientzako modako jantziak saltzen dituen dendarik oso gutxi daude inguruan. Gu gara bakarrenetarikoa”.

Zirrara uneak dendan

Atenea dendetara neska gazteak joaten dira gehien bat, “batez ere, 58, 60 eta 66 neurriak dauzkatena”. Anak esan digunez, hunkitu egiten dira aukera asko dagoela ikustean, “negar ere egiten dute batzuek, ez daude-eta ohituta gustoko duten arropa beren neurrikoa izatera”.

Ana Cochón-ek eta bere ahizpek egiten dute neurri handiko jantzion diseinua, eta bere berbetan, “ez dira oso merkeak, ezta garestiegiak ere, tarteko salneurria daukate”.^m

Negozio biribila

Ateneak **adin guztietako emakumeak** (13 eta 80 urte bitartekoak) erakartzen ditu; horietako batzuk Logroño, Madril edo Frantziatik datoz. Maiatzaren 16an, **Madriren zabalduko dute denda** berri bat. Horretaz gain, festa-soinekoak, bainu-jantziak eta barruko-arropak saltzen hasteko asmoa daukate.

I

I aki
Bitxitegia

Ω

OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte T: 4302345

Algorta

A

Arasa

Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa

Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa



Sarrikobaso, 44 • Tel/Fax: 94 430 11 91 • 48990 Algorta

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO



GIZONENTZA -
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

ALBE alerik ale

Erromoko leihotik begira

Nahikari Aio > Bertsoaren zalea, denetarako trebea

Testua: Josu Arroyo / Argazkia: Asier Mentxaka

Saltsa eta ekimen guztietan izango duzu bidelagun, eta eskolako txikiek aspalditik dute ezagun. Oholtzatik behera jaitsi zen, eta hortxe dabil, bertsogintzan eta euskalgintzan bere bidea urratzen.

—Nori egingo diogu elkarrizketa, bertsolari bati, gaijartzaile bati...?
—Bertsozale bati. “Bertsolari” izen handia da niretzako. Egaña eta horren mailakoak, horiek dira bertsolariak. Nik inoiz kantatzen dut, gaiak ere jartzen ditut... Baina ni bertsozalea naiz, besterik ez.
—Zergatik ez duzu aurrera egin bertsolari moduan?
—Txikitan hasi nintzen bertsotan, baina gero sasoi baterako utzi nuen, futbola zela medio, futbola nahiago nuelako. Futbolaz ere nekatu eta berriro itzuli nintzen, Xabi Paia eta Miren Loizagarekin batera, eta hortxe ibili naiz, apurka-apurka ikasten, baina gauzak lasai hartuta.

—Umeekin beti moldatu zara ondo, irakasle moduan-eta. Zergatik hori?
—Bai, orain eskolan, eta lehen futbolearen ere umeekin ibilita nago. Umeekin harreman ona daukat, eta ez da oso zuzena hortik jarri didaten serio fama. Gaztetxoek eskolan, asteartetan, barre asko egiten dugu, baina batzuetan umei gogoratu egin behar zaie eskolara bertsotan ikasteko datozela, eta hori da nik egiten dudana.
—Eskolako jendeak oso ondo hitz egiten du gaztetxoek taldeaz. Zer dio horri buruz haien irakasleak?
—Erraz egiten dute bertsotan. Horretan guk haien adinean baino soltura handiagoa



“Gaztetxoek erraz egiten dute bertsotan, eta gauza gutxi irakatsi behar zaie”

daukate. Aukera izan dute jada kalean kantatzeko, jaietan kantatzeko, eta adibidez Santa Ageda egunean argi ikusi zen nagusiei aurre egiteko gai direla. Gauza gutxi irakatsi behar zaie, eta askotan jartzen dizkiet ofizioak, eta bakarka kantatzeko gaiak, bat-batean ederto moldatzen direlako.
—Berba egin dezagun Nahikari gaijartzaileaz. Nola ikusten duzu zeure burua arlo horretan?
—Batzuetan kostatzen da gaiak jartzeko orduan asmatzea, batez ere txapelketetan-eta. Ez dakizu nori tokatuko zaion zuk prestatutako gaia, eta pixka bat neutral jokatu behar duzu. Bestela, bertso saio

ERAKUSLEIHOA

- ▶ Nahikari Aio Acebo.
- ▶ 1982an jaioa, Bilbon.
- ▶ Betiko eta Ander Deuna ikastoletan ibilia.
- ▶ Egun, Euskal Filologia ikasten, Deustun.
- ▶ Hainbat eskolatan dabil bertso irakasle.

HIRU LERROAN

Emakumeak kirolari

Bertsojartzailea: Nahikari Aio / Doinua: O, baserritxo!

1

Urte askoan ibilia naiz
ni futbolearen jo ta ke,
mutilekin baloia astintzen
jasanez mila buruhauste.
Neskok kirol bat hautatzeko ere
ezin gara izan aske,
kirolean zer egin behar dugu
berdintasunaren truke?

2

Marka bat hautsi, rekord bat lortu
eta ez digute esaten,
kazetariak ibiltzen dira
txutxumutxuak kontatzen.
Somarriba, Tzibi, Onaindia
ez al dituzte ezagutzen?
Oso argi dut ez gaituztela
batere kontuan hartzen.

3

Athletic-en neskatoen taldea
hortxe dabil bizi-bizi,
ligan ederto baten ibili
ta izan dira nagusi.
Gabarra atera beharko diegu,
eurek baitute merezi;
Athletic-eko gizonetakoek
badute nondik ikasi.

“Gaijartzaile taldea osatu da eskolan, dinamika berria sortu da, eta horrek asko laguntzen du”

arruntetan, errazagoa da. Horretara ohitzen zoaz, eta ez duzu ibili behar beti egunkariak eta aldizkariak eskuan, gai egokien bila, ideiak berez ateratzen dira. Orain gainera, gaijartzaile taldea osatu da eskolan, dinamika berria sortu da, eta horrek asko laguntzen du. Saioetan gaiak jartzen ere eskolako jende desberdina ikusten duzu, eta hori oso garrantzitsua da.
—Nola igartzen duzu gaietan asmatu duzun ala ez?
—Nahikoa izaten da bertsolarien aurpegia ikustea mikrora hurbiltzean. Normalean zuk badakizu nor ibiliko den kantuan zure saioan, eta gaiak horren arabera jartzen dituzu, honi era batekoak, beste honi horrelakoak... Nik orain arte ez dut arazorik izan alde horretatik. Berandu abisatuta edo, behin bertso saio bat prestatu nuen ordubetean, justu-justu, eta hura ere ondo

atera zen. Baina normalean dena prestatzen dut egun bi lehenago, gutxi gorabehera, lasaiago ibiltzeko.
—Hortaz, laster ikusiko dugu Nahikari Euskal Herriko txapelketan, finaletan-eta, gaiak jartzen?
—Hori asko esatea da, baina ondo egongo litzateke. Dena den, eskualde mailan gabil-tza oraintxe, eta oso pozik gainera. Saio nahikotxo egiten ditut urtean, eta horrekin momentuz konformatzen naiz.

Erromon hartu gintuen Nahikarik, nekatu samar, egun osoan hango eta hemengo eskoletan ibilita. Aste Santurako txangoa antolatu zuen umeekin, eta gogaituta zegoen, baina pozik aldi berean. Gutxiak genekien futbolari ohia dela, eta aukera baliatu genuen emakumeak eta kirola bertso bidez uztartzeko. m

BERTSOAGENDA

TXAPEL BETE BERTSO

Maiatzak 9, 20:00etan,
Algortako Viejo Kafin.
Bertsolariak: Pello Etxebarria, Ekaitz Larrazabal, Oihana Bartra eta Iñaki Iturrioz.
Maiatzak 16, *Elorrioko Kirrun.*
Bertsolariak: Galder Bilbao, Unai Angulo, Txomin Madalena eta Jokin Kastaños.
Maiatzak 23, 22:00etan,
Lezamako Oxangoitin.
Bertsolariak: Jagoba Pereda, Etxahun Lekue, Alain M. Urrutia eta Matxalen Zabaljauregi.

Eztok amairu

Ez dau biaje laburre egin, ba, ipuintxu zenbakidunen tradiziñok: Bretañako druida eta bardo zeltak, Europako eta Euskal Herriko kristautasuneko tradiziño, Ermuko amama bat, Azkue, Oteiza,... Baia hori bai, “eztok amairu” esakere Euskal Herriko bersiñotan bakarrik agertuten ei da. Eta agertu beharko dau ondiño, gaur egun bere ez daku falta eta, hori esakeratxu erabilteko arrazoirik.

Testua: **Xabier Bilbao**

Jorge Oteiza zana aitetuko dot lehelen-go, omenalditxu moduko bet egitearren. Berak emon ei eutsen “Ez dok amairu” uzena Laboa, Lete, Lertxundi eta beste euskal abeslari eta artista gazte batzuk, diktaduren sasoi en euskere eta kultura euskaldune makurralditik altxaten lagun-duteko asmogaz, sortu euden talderi. Sasoi illunek ziren horrek gure kulturentzako, baia zorionez, ez horrek artistak ez beste jente askok ez euden malefiziotan eta destinu petralatan siñestu eta beharren para ziren, bai eta gauza politek sortu, ikastolak eta gaueskolak, esate baterako.

Baia goazen atzera gure esakerara. Oteizari esakera hori kultureko beste behargin itzel baten beharratik heldu yakon: Resurreccion Ma Azkue. Honek ehundeka batu euzen abestik, ohitura zaharrak eta ipuiñek, eta gu danontzako gordeta itxi bilduma ederratan. Horretariko baten, “Euskal-erriaren Yakintza”-n, Ermuko amama batek konta eutsen ipuintxu bet dakar: “San Martinen estutasuna” (hortxe eskoian dekozue).

Ipuiñek diñon lez, Martin errementari zan, eta beharren ebillela, haserrekontze baten bota egin eun madarikaziño bat eta ha entzunte deabru agertu yakon, Martin beragaz erotoke prest. Martin ordun da-



mutu egin zan eta demoniñori handik joteko eskatu, baia honek ez zala jongo Martiñek proba hau pasa ezen: batetik hasite, zenbaki bakotxako misterioi aite-tu. Holan hasi zan Martintxu, lehelengo batagaz “Gure Jauna bera dok bat”, bie-gaz, “Erromako altarak bi” eta abar, eta hamabi esanta, Txerrenek hamairu eskatu ei eutsen, baia Martintxuk ordun “eztok amairu” erantzun, eta Ama Birjiñeri laguntziño eskatu eutsen. Ordun desager-tu ei zan Inpernuko Patxi. Aurre egin eut-



sen Martintxok “eztok amairu” esanta, eta horrer eker libra zan.

Ermuko amama horrek konta eutsen Martin errementarin ipuintxu Azkueri, baia amama horrer beste amama edo aiti-te batek kontako eutsen: Azkuek “Can-cionero Popular Vasco”-n diñosku kontut-xu bera edo antzeko Legutianon, Gabikan, Lekeition eta Euskal Herriko beste leku batzuten batu eule. Azkuek diñon lez, Euskal Herrin lez Europako beste herri batzuten topa leitez estilo horretako ipuiñek, zenbakik erabilten daudezenak, zenbaki sakratuk, fede eta tradiziñon ganerako gauzak memorin gor-detako. Horretan kontuten ikertu daude-nak diñaude kristautasunen aurreko gauze direzela horrelau ipuiñek, eta gaurko

Ipuina

San Martin errementari zan. Behin beharran gogortasuneaz hasarre egoan gizona, eta deabruri arime opetzi eutsen, estutasun hatatik urtetearren. Baia deabru (Txerren) agertu egin jakon behingon, “ik geitu deustak eta hona ni” esanta. Martiñek ordun, beran berba motzakaz damutute, handik joteko eskatu eutsen, baia Txerrenek “nire eskutetik libre egon gure badok, gauza bi egin beharko dozak oraintxe: lehenengo, burnizko tresna barri bat sortu, eta bigarrena, hamabi misterio handik zeintzuk direzen esan”. Beharren para zan Martin eta handik gitxire akabata euken munduko lehenengo zerre, burni bet gaztaiñondon orrin erara moldatute. Ordun bigarren probe, hamabi misteriona, eskatu eutzen demoniñok: “Martintxu, esaik bat”, eta Martiñek “Gure Jauna bera dok bat”; “Martintxu, esaik bi”, eta Martinek “Erromako altarak bi”; eta holan esan eutsezen Martiñek beste misterioiok bere: “Hiru Trinidadek hiru”, “Lau ebanjelarik lau”, “Jesukriston zaurik bost”, “Sei argi-egillek”, “Zazpi Sakramentuk”, “Zortzirek direz zerun”, “Bederatzi ordenamentuk”, “Hamar Mandamentuk”, “Hamaika mille angeruk”, “Hamabi apostoluk”,... eta ordun deabruk eskatu eutsen, “esaik hamairu”, baia Martiñek erantzun, “ez dok hamairu!”, eta deabruk otera “badok hamairu!”, eta Martintxuk, “Ollarrak jot en dau munduan, angeru ederrak zeruan, neure arime itxiten deutset Andra Mariri altzoan.” Eta jon egin zan Txerren. 4

Iturri: **R.M. Azkue** “Euskalerriaren Yakintza”, II. liburu, 312-314 or.(egokitute)

«Aurre egin eutsen Martintxuk deabruri “eztok amairu” esanta»

Bretañako tradiziño zelta zaharran topa behar dala estilo horren sorkuntze, herri zeltatako bardo eta druidan abesti eta ipuiñetan.

Ez dau biaje laburre egin, ba, ipuintxu zenbakidunen tradiziñok: Bretañako drui-da eta bardo zeltak, Europako eta Euskal

Herriko kristautasuneko tradiziño, Er-muko amama bat, Azkue, Oteiza,... Baia hori bai, “eztok amairu” esakere Euskal Herriko bersiñotan bakarrik agertuten ei da. Eta agertu beharko dau ondiño, gaur egun bere ez daku falta eta, hori esakerat-xu erabilteko arrazoirik. m

akabukopunte@hotmail.com

Zuen berbakeraren gainean zeozer aipatu gura baduzue, zalantzaren bat edota proposamen bat badaukazue...



orain
hamabostean
behin

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37


dirulaguntzak

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5.
bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

Euskara ikasten dute

Eneko López (Sopela)



—Noiz hasi zinen euskara ikasten?
—Ikastolan eta institutuan euskaraz ikasi nuen.
—Zein mailatan zaude?
—EGA mailan nago.
—Non ikasten duzu?
—Sopelako Udal Euskaltegian, eta hortik kanpo institutuan.
—Zerk bultzatuta ikasi zenuen euskara?
—EGA ateratzeak batez ere. Nire kabuz egiten saiatu nintzen, baina txarto atera zitzaidan eta horregatik euskaltegira etorri nintzen.
—Zer da gehien kostatzen zaizuna?
—Aditzak ondo bereiztea eta hitz egitea batez ere.
—Orain arte ikasitakoa erabiltzen duzu?
—Egia esan oso gutxi, euskaltegian eta batzuetan kalean.
—Zelan definituko zenuke euskara?
—Kalean, batez ere hemen inguruan, oso gutxi erabiltzen da eta hizkuntza dakigunok erabiltzen saiatu behar dugu, beharbada hori da indartu behar dena. m

Lekuen betiko izenak

Getxoko toponimiaren gaineko ikerketaren bigarren zatia abian

Amagoia Aurrekoetxeak eta Sofia Susok herriko toponimia biltzen ibili ondoren, beharraren bigarren zatiari ekin diote. Zati honen helburua, jasotako datu guztiak aztertzea eta herritarrei ezaugaraztea izango da.

Euskararen normalizaziorako bidean, Udalak hainbat ikerketa eta lanen beharra ikusi zuen. Honela, 2001 urtean, Getxoko toponimia biltzeari ekin zion. Amagoia Aurrekoetxea eta Sofia Susori esleitu zien eginkizun hori eta urtebetez ibili ziren gure herriko kultura-ondarearen zati handia den toponimia batzen. Besteak beste, Bizkaiko agiritegi historiko probintziala, Getxoko udal-agiritegia eta jabetza-erregistroa aztertu zituzten, bertokoen testigantzeekin batera. Guztira, 1.259 toponimo bildu zituzten: etxeen, erreken, kaleen, mendien, iturrien, elizen edota soroen izenak.

Orain ikerketaren bigarren zatia dago martxan; datuen azterketa, hain zuzen ere. Horretarako, 12.000 euroko aurrekontua onartu zuen Udalak. Ikerketaren lehenengo zatian lortutako



informazio guztia batu, aztertu eta azkenik, hori guztia herritarrei heldu ahal izateko bideak landuko dituzte, hala nola liburu bat argitaratu, CD bat prestatu eta toponimoak biltzen dituen eta ibilbide batzuk erakusten dituen mapa bat sortu. Behar honetarako, Euskaltzaindiaren aholkuak jarraituko dituzte Amagoiak eta Sofiak, toponimoen izen arautua idazteko orduan, adibidez. Mikel Gorrotxategi, Euskaltzaindiako Onomastika Batzordeko burua, eurekin arituko da beharrean. m

«Guztira 1.259 toponimo bildu dituzte ikertzaileek»

Euskararen eta ikastolen aldeko jaiak, 2003

Badatoz, osterara ere, euskara eta ikastolen aldeko jaiak. Horietan lehena, urtero lege, Herri Urrats dugu. Hau maiatzaren 11n ospatuko da, Senperen. Datu bat ematearren, 1969an Iparraldean ikastola bakarra eta 8 ikasle baino ez zeuden; gaur, 20 ikastola, 3 ikastetxe, lizeo bat eta 1.951 ikasle daude.
Maiatzaren erdialdera, 18an, hain zuzen ere, Ibilaldiak hartuko du lekukoa, Lekeition. Eta ekainaren 8an, Oion izango da Araba Euskararen aurtengo hiriburua. Kilometroak eta Nafarroa Oinez, berriz, hurrengo ikasturtearen hasierarekin etorriko zaizkigu; lehenengoa, urriaren lehenengo igandean ospatuko da, Lazkaon; eta bigarrena, urriaren 19an, Irunberrin.

Urbe Kostako Euskara Zebitzuak zure zerbitzura

Getxo: 94 491 14 41 • Leioa: 94 400 80 44 • Erandio: 94 489 01 40 • Berango: 94 668 00 08 • Gainerako herriak: 94 676 26 74

2003/05/14

maiatzaren 14an

dena hankaz gora jarriko dugu!

**ARGIA**
EUSKAL HERRI KO EUSKARIA



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Antxoak kazolatxoan

Antxoaren sasoi bete-betean gaude. Aurtengoa, entzun dugunaren arabera, oso kanpaina txarra izaten ari da gure arrantzaleentzat. Ea datorren urtekoa hobea den! Antxoa hamaika modutan presta daiteke: binagretan, albardatua... Edozelan ere, beti gozo. Gaurkoan, antxoan kazolatxoan proposatzen dizuet; errezeta erraza eta edozein gonbidaturen aurrean sukaldari onaren itxura emateko baliagarria. Hasteko txikitu berakatz ale batzuk eta gindilarekin batera, oliba oliotan sutan ipini. Berakatz urreztatu baino lehen, bota basokada erdi ozpin eta ardo zuriko beste bat. Olio berotutakoan, bota antxoak (800 gramo, buru barik eta tripak kenduta) eta perrexil apur bat. Itxaron bost minutu eta mahaira! ^m

osagaiak (bi lagunentzat)
800 gramo antxoa • berakatz • gindilak • basoerdi ozpin
basoerdi ardo zuria • oliba olio • gatza



itsaso arana / jolastoki-koa

Zer ote da dekantazioa?

«Dekantazioa ardoa aireztatzeko eta denborarekin sortzen zaizkion sedimentuetatik bereizteko erabiltzen den teknika da»

Ardoaren dekantazioa behar-beharrezko teknika zen antzinako ardoetan, batez ere ekoizteko moduagatik. Gaur egun berriz, ardo zaharretan baino erabiltzen ez den teknika dugu.


Dekantazioa ardo garbia eta bere zikina banatzea da, hau da, ardoa, denboraren poderioz sortzen zaizkion sedimentuetatik bereiztea. Helburua ardoan sakabanatuta dauden partikula hauek sortzen duten itxura desatsegina saihestea da eta era berean, partikula hauek ahoan igartzearen desplazerra. Dekantazioa, ardo oso astiro botilatik decanter-era (edo pitxer batera) pasatzean datzan teknika da.

Dekantazioaren beste onura bat zera da, ardoak arnasa hartzen duela eta horrela aireztatu eta asfixia usainak galtzen dituela. Baina kontuz, bortizki eginez gero, kalterako izan daiteke dekantazioa.

Hortaz, zera esan daiteke laburbiltzeko:

- Hondarrak (posoak) dituzten ardoak baino ez dira dekantatu behar.
- Azken bolada honetan, gazteegiak diren ardoak dekantatzea gomendatzen da, berez duten indarra apur bat gal dezaten.
- Gehiegi aireztatu ez dadin, azken unean dekantatu behar da ardoa beti. ^m

Xurrut pizzak eta rock&rolla Gorlizen



Argazkian, Luki tabernako jabeetako bat

Gorlizen badago taberna berezi bat, Xurrut, pizzak eta rock&rolla uztartzen dituen. Bereztasun honen azalpena jabeetako batek, “Luki”k, azaldu zigun: *“Duela 18 urte ireki genuen; hasieran kopak hartzeko taberna eta kontzertu aretoa zen; garai hartan Plentzian giro handia egoten zen eta jendea hona hurbiltzen zen; baina hura amaitu zenean gureak ere behera egin zuen”*. Honela, 1990eko udan, taberna pizzeria bihurtzea erabaki zuten (kontzertuak eskaintzeari utzi gabe, jakina).

Ordutik hona, beraz, Xurrut pizzeria legez ezagutzen dugu, baina hori bai, beste lekuetan aurkituko ez ditugun pizzak jateko aukera dugu bertan. Kasu

baterako, beste inon ez dugu aurkituko pizza mota bat makailua eta piper gorriak dituen. Eta hori adibide bat baino ez da. Marta Zelaia eta “Luki” bera dira halako pizza berezi eta gozoak prestatzen dituzten sukaldariak.

Baina esan bezala, horrez gain, kontzertuak ere sarri egoten dira. Musika estilo askoko talde alternatiboek jotzen dute bertan. Interesgarria izan daitekeen talderen bat Bilbora hurbiltzen denean, Xurrukoek ez dute Gorlizera ekartzeko aukera galtzen. Pizza hasteko eta kontzertua bigarrenetako, ez da plan txarra! ^m

XURRUT TABERNA
Gorliz. Telefonoa: 94 677 13 89

jakingehiago



Lezaun > ardo ekologikoa Modu garbian egindako ardoa

Familia baten esku dago Nafarroako Lezaun enpresa txikia. 1994an hasi ziren ardo beltza eta gorria ekoizten, XIX. mendeko upategi baten; gaur egun, bederatzi ardo mota kaleratzen dituzte, gehienak nekazaritza ekologikoz hazitako mahatsez eginak. Egiarte Lezaun, Lezaun eta Aroa markapean merkaturatzen dituzte euren produktuak. Kopuruari baino, kalitateari ematen diote garrantzia upategiko ugazabek.

jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA

EGINKOR
INMOBILIARIA

Basagoiti, 55 behea
T.: 94 460 09 62 / 66
Faxa: 94 460 0966
48990 ALGORTA
eginkor@euskalnet.net
www.inmoeginkor.com

Jose Unzurrunzaga Astigarraga

HORTZ?KLINIKA

Tel. & Faxa: 94 460 06 21
Andikoetxe 2, behea ezkerre
ALGORTA

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA

ezagutzen al duzu?

*herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!*

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Norte jatetxea

adituak gara
makailo eta
kazolatxoak
prestatzen

Bilbo-Plentzia errepidea
Elexalde 9, Barrika - Tlf-94 677 30 09

Zurikaldi

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

SATISTEGI

**ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!**

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO



BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA



**Bidaiak
Autobusak**

T: 94 453 08 16 - 609 405 988
Faxa: 94 453 33 34
GETXO



**altzariak
dekorazio-opariak**

Andres Larrazabal, 11
AREETA
T. : 94 464 89 94

Juan Bautista Zabala, 5
ALGORTA
T. : 94 491 13 94



**Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina**

**T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA**

[horoskopoa]

URA t (Abenduak 21 urtarrilak 19) Lagunak gehiago bisitatzea komeniko litzaizuke, denbora asko igaro da-eta eurak ikusi barik. Finantza-kontuetan ez zara hain despistatua izan behar. Lanean gorantz zaoz. Oraindik ez zaude zeure sasoirik onenean baina suspertuko zara.	OTSOA t (Urtarrilak 20 otsailak 18) Berri onak jaso ditzakezu aspaldian ikusi ez duzun familiako baten ahotik. Zure lanean aldakuntzak badaude ahalegin guztiak egin itzazu kaltetuenan izan ez zaitez. Gorputza hainbeste behartzeari utzi eta atsedean apur bat har ezazu, ondo etorriko zaizu.	ADARRA t (Otsailak 19 martxoak 20) Ez ahaztu zure bikotekideak asko maite zaituela. Ailegatu da bera txunditzeko unea. Zor gehiago edukitea ez zaizu batere komeni. Zure egitasmo profesionalak ugarituko dira; beraz, hautatzeko aukera duzu. Ez zara medikuarengana joan behar.
AITZURRA t (Martxoak 21 apirilak 19) Bikotekidearekin elkarriketa izango da nagusi. Finantza-kontua desorekatuko da apurtxo bat, uste ez zenuen gastu batzuk izango dituzulako. Daukazu osasun onarekin balentria handiak egiteko gauza izango zarela uste duzu.	HOSTOA t (Apirilak 20 maiatzak 19) Zure bizitza sentimentalaren uhalak har itzazu eta erabaki garrantzitsuak hartzen hasi behingoz. Arlo ekonomikoan zoria alde izango duzu. Zure negozioetan sinisteko garaia heldu zazizu. Ariketa fisiko gehiago egin behar duzu.	EGUZKIA t (Maiatzak 20 ekainak 18) Zure bikotekidearekin sexuaz gozatzeko garairik aproposena da. Gehiago aurrezten ez baduzu arazoak izango dituzu. Beldurrik ez izan aldaketa profesionala badator, hoberako izango da eta. Min horiek eguraldiarengatik izan daitezke.
GARIA t (Ekainak 19 uztailak 18) Zure aurrean jarriko den jende guztia seduzituko duzu. Amaitu barik dituzun gai ekonomikoekin ez itsutu. Beharrea presaka eta nahiko esturututa egongo zara. Pazientzia eduki. Osasun aldetik, zeure burua ondo eta indartsu ikusiko duzu.	LASTOA t (Uztailak 19 abuztuak 17) Zergatik ez diozu ustekabe bat ematen zeure bikotekideari eta bidaia erromantikoa egin biok? Ondo pasatzen jakin beharko zenuke hainbeste diru gastatu barik. Beharrea zenbat balio duzun erakusteko aukera asko izango dituzu.	IRATZEA t (Abuztuak 18 irailak 16) Zure gaur egungo amodioak losintxak behar ditu, zuk bezala. Ahal duzuna aurreztu, laster diru hori beharko duzu eta. Agian zure nagusiak erantzukizun gehiago emango dizkizu. Nahiko triste egongo zara baina lasai, nahaste-aldi bat da soilik.
META t (Irailak 17 urriak 16) Zure bikotekideak zerbait berria egitea proposatuko dizu eta baietz esango diozu, noski. Finantza-ekimenak oso arrakastatsuak izango dira. Beharrea hobetzeko birziklapen profesionala egin beharko zenuke. Ariketa fisikoa astiro egin, nekatuko zara eta.	HAZIA t (Urriak 17 azaroak 15) Harreman egonkorrik ez baduzu laster gogoko duzun norbaitekin topaketa bizi bat edukiko duzu. Hasi aurrezten edo arazoak izango dituzu. Taldean lan egin gura izango duzu baina kontuz ibil zaitez lankideei egozten diezunarekin.	NEGUA t (Azaroak 16 abenduak 20) Zure babesteko sena agerian geratuko da: ez gogaitarazi zure ondoan daudenak. Ekonomia aldetik dena oso ondo doa, baina hori bai, beharreko nagusiekin pazientzia eduki. Zaintiratuak edukitzeko arriskua duzu, ariketa gehiegi egiten duzu.



mungia

oKINDegia

Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.


KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA

[komikia]



LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZA -



Ezker eskuin

1. Balakatuak, ferekatuak. 2. Larruzko oinetako. Arrazoi. 3. Iparraldean, nezake. Arrantza ontzi txiki. 4. Bizkaiko herria. Garai. 5. Iridioaren sinbolo kimikoa. Urrea. Gipuzkoako hiria. 6. Euskal langile sindikatua. Barda. Boroa. 7. Bizkaieraz, Inola. (Infin.) Ukitu. 8. Letoniako hiriburua. Aluminioa. Musika nota. 9. Trebea. Sortu zintuena. 10. Koskadun. Naizen hau.

Goitik behera

1. Langile klasea. 2. Martxan jarrak. 3. Zirt edo..., erabaki! Ikusmenaren organoa. 4. Asia Txiki-ko antzinateko hiria. Asiako estatua. 5. Nor pluralean. Amerikako estatua. Kanpo. 6. Zubereraz, ibarra, harana. Emakume izena. Uranioa. 7. Bostehun. Bokala. Iridioa. Behar, egiteko. 8. Uztarriz lotu. Mila. 9. Iparraldean, keinu. Eskoziako familia-multzo. Amerikako estatua.

Soluzioak

I	N	N	U	T	S	V	A	K	V
V	W	V	O	I	V	I	I	A	I
V	L	V	O	I	G	A	R	I	R
I	K	U	N	V	L	E	Z	E	Z
B	T	R	V	B	V	B	V	L	
N	U	R	I	U	V	R	I		
O	R	V	V	K	I	T	V	G	
L	E	T	V	B	O	H	I	N	
O	I	Z	V	K	H	V	A	V	
K	U	D	N	V	T	Z	L	V	



EUSKALDUNON
denbora-pasa
eta hitz jokoen
hilabetekaria

Zozketa mundiala*
harpidedunen artean
8 eguneko kruzeroa 2 lagunentzat
Mediterraneoan (lotordua sartze)

* Zozketa 2003/03/21n egongo da

BIDALI ZURE DATUAK ETA IZAN ZAITEZ LUMA-KO HARPIDEDUN

Luma BAGABIGA, E.M.E.
Isillaga plaza 2 behea, 307 PK-20304 IRUN
Tfho: (+34) 943 62 95 64 - (+34) 943 63 08 83
luma@xedera.com / www.xedera.com



Bittor Egurrola

Areetako “Madre del Divino Pastor” ikastetxea, 1947

Orain dela 56 urteko argazki honetan, Areetako “Madre del Divino Pastor” ikastetxeko 40 mutiko ageri dira, 5-8 urte tartekoak. Neskato ikaslerik ere bazeukaten, baina jakina, garai hartan ikastetxe erlijioso bateko neskato eta mutikoak argazki berean agertzea pentsaezina zen. Moja katalanen zuzendaritza eta ardurapean 1942 edo 1943an sortua, irakakaskuntza eskaintzen jarraitzen du gaur egun ere, A eta B ereduetan, baina ikastetxearen izenak besterik adierazten duen arren, egungo irakaslerik gehienak ez dira mojak. Argazkiko baratzea, ikastetxekoa, orain ez dago: etxeak eraiki dira leku horretan. Argazkiko eraikina ere ez da ikastetxea, Azpiunza familiaren etxea baizik. Etxe hori berdi-berdin dago gaur, Gobela eta Santa Anako kantoian, gaur egun Santa Ana kaleko 5. zenbakia daukala. Ikastetxea bera baino zaharragoa da etxe hau, ehun urte ingurukoa, XX. mende hasierakoa. Argazkiaren orientazioaz azken hau esan daiteke: mutikoen aurrean, Areetako antzinako tren geltokia zegoela eta etxearen atzean, Santa Ana basiliza. ^m

Lehenengo lerroa: Leza, ?, ?, ?, Arkotxa, Carmelo Fernández, Pedro Carlos Bujedo, Joaquín Velilla, José Mari Bastero “Cachimba”.
Bigarren lerroa: ?, Angel Mari Salterain “Toli”, Zabaleta, Manu Alvarez “Geru”, Txurruka, ?, Gutierrez, ?, José Mari Blanco, Quintana “Chufa”, ?, Santi Bilbao “Mengo-mengo”.
Hirugarren lerroa: Txurruka, ?, Juanjo Lumbreras, José Manuel Elorriaga “Cordero”, Fz. de Jungitu “Chanchi”, Allende, Ramón Terrón “Mon”, Victor Azkarate, Saez, Larrañaga “Popi”.
Laugarren lerroa: José Ateka, Manu Larrazabal “Chapuzas”, Josu Goitia, Juan Antonio Basagoiti, Jesús Bastero “Chuchín”, Carlos Bastero “Caco”, Paco Esteban, Jerónimo Esteban, Patxi Anguiano.

asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Tolosako soprano honek 1990ean eskaini zuen lehen saioa
- Plácido Domingorekin batera abesten du sarri
- 2001ean Musika Klasikoko Artista Onenarentzako saria jaso zuen

> Aurrekoaren erantzuna: Unax Ugalde
> Irabazlea: *** Eneko Gisasola (Getxo)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / faxa: 94 491 58 31

•Argia astekariaren biru
hilabeteko harpidetza doan



•Freexkue
liburua

www.argia.com

[aitormenak]

JOSE ITUARTE > kazetaria

“Bizkaian errealzalea naiz;
Gipuzkoan, athleticzalea”



Zure izaera laburbiltzen duen ezaugarriren bat...
Uff... ez da erraza, baina inpazientea naizela esango nuke.
Eta saiatzen naiz zintzoa eta zuzena izaten.

Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena? Ordenaren mania daukat, baina txorakerietan; gauzak desordenatuta egon arren, gustatzen zait beti modu berean desordenaturik egotea.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat...
Sei edo zazpi urte nituela bizikleta istripu latza eduki nuen. Ospitalean esnatu nintzenean, ispilu bat jarri zidaten aurpegiaren aurrean eta irudi hori, erabat deformatua, guztiz ikaragarria iruditu zitzaidan.

Zer da jarraitzaile batek esan dizun gauzarik ederrena?
Jende askok lanari buruz aipamen politak egiten dizkit eta horrek pozik uzten nau. Batzuetan kontuan hartzen dira gauza horiek, baina ez pentsa! Hala ere, guztiok pozten gaitu goraipamenak entzuteak.

Zein komentariok egin dizu kalte gehien?
Nire kasuan sarritan gertatzen den gauza bat, hau da, Bizkaian baldin banago errealzale deitzen didate, baina Gipuzkoan banago athleticzale esaten didate. Tontakeria da, baina asmo txarrez esaten bada haserretzen naiz.

Abestirik gustukoena? Beatles-en edozein; adibidez, *Yesterday*.

Film bat? Orain oso film gutxi ikusten ditut, baina badaukat gogoia *El pianista* ikusteko. Beste bat aipatzekotan, *Schindler-en zerrenda*.

Eta liburu bat? Momentu honetan, gomendatu didaten *El tocador de señoras*, Eduardo Mendozarena, irakurtzen ari naiz. Kazetaritzarekin lotuta eta unibertsitatean gomendatzen zigutena, Truman Capote-ren *A sangre fría*.

Zein leloekin egiten duzu bat? *Haz el bien y no mires a quien*.

Zertan edo norengan sinesten duzu? Batez ere jende zintzoarengan.

Zerk ematen dizu beldurra?
Seme txikiak ditudanez haiek gaixotzeak kezkatzen nau oso.

Nork edo zerk egiten zaitu zoriontsu?
Batez ere familiak, dudarik gabe, baina baita lagunak ere.

Errepikatzen zaizun ametsa... Gustatuko litzaidake urte sabatikoa edukitzea, nire emaztearekin bidaiatu ahal izateko. m

JOSE ITUARTE — Getxoztarra dugu ETBko kazetari hau, Santa Anako auzoan jaio eta gaur egun ere bertan bizi da. Leioako unibertsitatean burutu zituen ikasketak, eta haiek amaitu bezain laster Deia egunkarian praktikak egin zituen. Hortik, Portugaleten zegoen irrati batean, Onda 3 hain zuzen, hasi zen lanean. Soldaduskak eten bat egin zuen bere ibil-bidean, baina bueltatu zenean Radio Euskadin hasi zen lanean zortzi urtetan. Orain, ETBko kirol sailan egiten du lan eta aurten bere zortzigarren urtea bete du.

GETXO ALMONEDA 2003



III. Getxoko Enkante eta Antikuarioko Aretoa

MAIATZA 22,23,24,25
Ordutegia: 11:00 - 14:30 17:00 - 21:00 • Sarrera: 2€
Areetako Geltokiko plazako karpan